



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Sarearen jarduerari buruzko
2017ko txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Sarearen jarduerari buruzko 2017ko txostena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2018ko abendua

Ale-kopurua:

60

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Errepografia Zerbitzua

L.G.:

VI 964-2018

aurkibidea

1. ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2017AN	5
1.1 Barrura begirako lana	7
1.2 Kanpora begirako lana	9
• 1. lan-ardatza: Arreta, Aholkularitza eta Laguntza	9
• 2. lan-ardatza: Prebentzioa, Prestakuntza eta Sentsibilizazioa	42
1.3 Jarduera osagarriak	57
2. ESPERIENTZIA POSITIBOAK, TRATU-BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIOARIK EZAREN ARLOAN	57
Jardunbide egokiak TBDEren arloan:	59
• <i>Sexualitatearen koloreak</i>	59
• <i>Bizilagunak</i>	61
• <i>Kolore bat gehitu ortzadarrari</i>	63
• <i>Aniztasunaren polizia-kudeaketa</i>	65
3. DISKRIMINAZIOAREN EGOERA EUROPAN, ESTATU ESPAINIARREAN ETA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN: HURBILKETA	67
3.1. Europar Batasuna	69
3.2. Gorroto-delituen gaineko datu ofizialak	72
3.3. 2017. urtean gertatutakoaren laburpena	72
4. ERABEREAN SAREAK ARTATUTAKO PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK	77
4.1. Emakume ijito bat: jazarpen diskriminatzailea zentro komertzial batean	79
4.2. Etxebizitza alokatzean diskriminazioa jasan duen biktima bat	81
4.3. LGTBifobiak eragindako eraso baten biktima bat	83

1

ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2017AN



ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2017AN

Txosten honen helburu nagusia Eraberean Sareak 2017an eginiko lanen alderdi esanguratsuenak jasotzea da.

Aurreko urteetan bezala, lan hori bi mailatan egin da: barrura begira eta kanpora begira.

1.1. BARRURA BEGIRAKO LANA

Sareak funtzionatzea, koordinatzea eta dinamizatzea ahalbidetzen duen ohiko dinamikan datza, sarearen koordinazio-egiturek eginiko bileren bitartez:

1. **Talde eragilea:** sarea bultzatzeko zereginak egiteko eta sarearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, talde eragilea sistematikoki biltzen da osoko bilkura bakoitza baino lehen, bai eta beharrezkotzat jotzen den guztietan ere: 2017an talde eragilea bederatzi aldiz bildu da.
2. **Osoko bilkurak:** Eraberean Sareak 11 osoko bilkura egin ditu 2017an, eta horietan parte hartu dute sareaosatzen duten erakundeen ordezkariak eta talde eragileko kideak.
3. **Batzordeak:** lan-eremu espezializatu gisa, hiru batzordeak (Informazioa eta Dokumentazioa; Prestakuntza eta Sentsibilizazioa; Diskriminazioaren Biktimentzako



Arreta, Aholkularitza eta Laguntza) hainbat bilera egin dituzte 2017an. Bilera horietako batzuk osoko bilkuren barruan egin dira.

Gauzak horrela, 2017an, 2016. urtearen amaieran hasitako egituraketa-lanarekin jarraitu da, barneko ebaluazio-dinamika baten bitartez. Ildo horretan, sare osoak partekatutako bi lan-saio egin ondoren (2016ko abenduan eta 2017ko urtarrilean)¹, beharrizanak eta erronkak identifikatu dira; hain zuzen, honako hauek:

Barne-antolakuntzari dagokionez,

1. Sarearen titulartasuna ezarriko duen arau-markoa zehaztea.
2. Sarea osatzen duten antenen konpromisoa birdefinitzea.
3. Sarearen funtzionamendua legeztatzen eta ordenatzen duten tresnak egitea eta artikulatzea, bai eta erabakiak hartzeko prozesuak ere.
4. Hiru begiraden arteko loturak bultzatzea.

Kanpoko proiektzioa eta erakunde arteko koordinazioari dagokienez,

1. Sarea gehiago hedatzea.
2. Tratatutako gorroto-delituei ikusgarritasun handiagoa ematea.
3. Auzitan jartze estrategikotzat jotzen diren kasuen onarpen juridikoa artikulatzea Justizia Sailarekin.

Barneko ebaluazio-prozesuan proposatutako gai batzuei erantzuteko hobekuntza-jarduera nagusietako bat barne-funtzionamendurako **Araudi** bat egitea izan da.

Proposamen horrek berretsi egin zituen arestian aipatutako premiak; hain zuzen, hauek: formula bat izatea sare osoaren funtzionamendua sistematizatzeko, kideen ekarpenak zehaztea eta adostutako eta sarearen jarduera osoa partekatutako eta adostutako helburuetara bideratzea.

¹ Prozesu hori aipatu zen 2016ko Eraberean Sarearen jarduera-txostenean, eta prozesuari urte horren amaieran ekin zitzaion. Sareko kideekin eginiko lan-dinamikan landutako gai nagusiak aurkeztu ziren azaletik.

2017ko irailaren 18ko osoko bilkuran onartu arte egin duen ibilbidean, partaidetza-prozesu bat egin da, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordea buru zela. Horrenbestez, antena eta batzorde guztiek izan dute aurkeztutako zirriborroei ekarpenak egiteko aukera.

Araudiak, nahitaezko zioen azalpenaz gain, honako hauek jasotzen ditu: sarearen definizioari eta jarduera-eremuari buruzko kapituluak; jarduerak, antolakuntza, egitura eta funtzionamendua; erakunde barneko eta erakunde arteko koordinazioa; sarearen hedapena, komunikazioa eta eragin soziala eta politikoa; auzitan jartze estrategikoa; erregimen ekonomikoa eta kudeaketakoa; sareak estatuan, Europan eta nazioartean duen proiektzioa, parte-hartzea eta koordinazioa; urteko prestakuntza-plana eta datuen babesa.

Bestalde, sarearen kanpoko proiektzioaren arloan identifikatutako beharrianak eta erronkak aintzat hartuta, gogoeta bat egiten hasi gara, Komunikazio Batzorde bat eratzeko eta abian jartzeko aukerari buruz. Horren harira, adierazi da batzorde hori barne-funtzionamendurako Araudian jasota dagoela.

1.2. KANPORA BEGIRAKO LANA

Arlo honetan bi ardatz lantzen dira. Batetik, **kasuen arreta, aholkularitza eta laguntza** ditugu; hor dago, hain zuzen, sarearen jardunaren funtsezko zatia. Bestetik, berriz, sarearen oinarri diren hiru arloak daude: **prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa**.

1. lan-ardatza: Arreta, aholkularitza eta laguntza

Lan-ardatz hau diskriminaziozko tratu edo gertakari baten biktimatza, edo arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako gorroto-delitu baten biktimatza har daitezkeen pertsonak edo taldeak zuzenean artatzeari dagokio.

Lan-ardatz horren barruan uztartzen dira, alde batetik, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak egindako lana eta, bestetik, diskriminazio-kasuak izan daitezkeenak detektatzeko eta horiek artatzeko orduan antenek egindako lana.



- **Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordea**

Bere egitekoa antenei laguntza ematea da, horiek artatzen dituzten diskriminazio-kasuen kudeaketa teknikoa eta juridikoa egiteko orduan, organo juridiko espezializatua den aldetik.

2017an, batzordeak aurreko urteetako funtzio eta jarduerak egiten jarraitu du: kasuak aztertu eta jarraitu beharreko estrategia juridikoak proposatu; estrategikoak izan daitezkeenak identifikatu; arreta juridikoa hobetzeko proposamenak egin; TBDE arloan espezializatutako dokumentazio juridikoa helarazi; prestakuntza juridikoko proposamenak egin eta prestatzaile gisa parte hartu barneko eta kanpoko prestakuntza-ekintzetan.

Besteak beste, 2017an nabarmentzekoa da **Euskal Herriko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritzea.**

Klinika Juridikoa ikaskuntzarako espazioa da, eta, aldi berean, Zuzenbideko eta kriminologia-ikasketetako sistema pedagogikoa eraldatzekoa. Gainera, diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoen gogoeta egiteko eta identifikatzeko laborategia ere bada. Estrategia horien bitartez, ikasleek gizarte bidezkoago bat eskuratzeko zeregin garrantzitsua dutela jakin dezakete. Klinika Juridikoak diskriminazioaren aurkako eta giza eskubideak defendatzeko estrategiak diseinatzeko helburu berberak dituzten gizarte-talde, -elkarte eta -erakundeekin lan egiten du.

Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Klinika Juridikoak eginiko lan-prozesuaren emaitza izan da, besteak beste, Klinika Juridikoak antolatutako prestakuntza-saioetan Eraberean Sareko profesionalak parte hartu izana.

Prozesu horri esker, gainera, sarearen eta unibertsitate-erakunde horren arteko lankidetzaren formalizatu da, *de facto* aurretiaz egiten ari bazen ere.

Hain zuzen ere, 2017an ezarri dira oinarriak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko JSKJ Justizia Sozialaren aldeko Klinika

Juridikoaren arteko lankidetzaz-hitzarmena² egiteko. Bi erakundeek helburu komunak dituztenez diskriminazioaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokan, aniztasuna eta tolerantzia sustatzean eta justizia soziala lortzearen arloan, uste izan da emankorra dela bi erakundeen arteko lankidetzaz-hitzarmen bat formalizatzea, ezagutza eta esperientziak trukatzeko, elkar aberaste aldera.

Hitzarmen horren bitartez, Eraberean Sarea osatzen duten erakundeek diskriminazio-kasuen arretan duten ikuspegia eta esperientzia eskainiko du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, eta Klinika Juridikoak Eraberean Sareari laguntza juridikoa emango dio JSKJko adituen eskutik eta jurisprudentziarako sarbidea emango dio, besteak beste.

- **Antenak, diskriminazio-kasuak detektatzeko eta arreta emateko**

Diskriminazio-kasuak izan daitezkeenak **atzematea** eta diskriminaziozko tratu edo gorroto-delitu baten biktima diren pertsona edo taldeei **arreta zuzena** ematea da antenen jarduera nagusia.

Horrekin lotuta, esan beharra dago, aplikazio informatikoa elikatze lanarekin aurrera jarraitu dela (aplikazioak sarbide mugatua du, eta antena bakoitzak bere pasahitza du), artatutako kasuei buruzko informazioa bilduz, ildo horretan egindako jardueren berri emateko kide guztiei.


² Txosten hau idazterakoan, hitzarmenaren izapidetzea azken fasean zegoen.



Jarraian, 2017an eginiko jarduerari buruzko **DATU GARRANTZITSUENAK** azaltzen dira.

Hasteko, Eraberean Sareko antenek 76 kasu artatu dituzte guztira.

Artatutako kasuak, guztira



■ Migrazioak ■ Ijito-herria ■ LGTBI

Elkarteek erregistratutako kasu guztien artean, % 71 ustezko arrazakeria- eta/edo xenofobia-kasu gisa tratatu dira, hau da, etnia, jatorri edo nazionalitateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak izan direlakoan. Tratatutako kasuen beste % 29 (22 kasu) ustezko LGTBIfobia-kasuak izan dira, hau da, sexu- eta genero-orientazio edo -identitateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak. Arrazakeria- edota xenofobia-kasuetatik, 42k migrazioekin lotura dute, eta 12k ijito-herriarekin (kasu guztien % 55ek eta % 16k, hurrenez hurren).


Bilbo, 2017ko abendua. Supermerkatu bateko segurtasun-agente batek Marokoko gizon bati eraso dio.

2017ko abenduan, CEAR Euskadi erakundeko erabiltzailea den marokoar gizon batek salaketa aurkeztu zuen, Bilboko supermerkatu bateko segurtasun-agente batek eraso egin ziolako. Halaber, lesioen partea aurkeztu zuen (hematoma besoan eta begietako narritadura arina, zaindariak defentsarako esprairen bat erabili zuelako). CEAR Euskadik bere gain hartu zuen kasua.

Salatzaileak une oro alegatu zuen agenteak "magrebtarra izateagatik" egin ziola eraso, "eskuan zuena lapurtu egingo zuela pentsatuta": supermerkatuan zegoen erosketaren bat egiteko asmoz, eta segurtasun-zaindariak, kutxara hurbildu baino lehen, harengana jo zuen esanez lapurtzeko asmoa zuela, eta, azkenean, borrararekin eraso zion eta espraia erabili zuen. Gazteak gertakariak salatu zituen, eta, azkenean, aldeei dei egin zaie lesio-delitu arin batengatik epaiketa egiteko (2018ko martxoaren 26an egingo da).


Artatutako 76 kasu horietatik 73k (% 96) diskriminazio-zantzuak zituzten. Gainerako hiru kasuetan, lehenengo balorazio bat egin ondoren, ondorioztatu zen ez zela diskriminaziorik gertatu ■

Diskriminazio-zantzuak



Grafiko honetan, xehetasunak begiraden arabera erakusten dira:


Diskriminazio-zantzuak begiraden arabera



Jarraian aurkeztzen den azterketa 2017an diskriminazio zantzuak erakutsi dituzten 73 kasuei dagokie.


Oraingoan, aztertuko dugu zer bidetatik jakin den diskriminaziozko tratua edo gertakariaren berri:

Kasuaren hasiera



2017an sareko erakunderen baten ekimenez irekitako kasuen ehunekoa nabarmen hazi dela ikus daiteke (guztizkoaren % 47), eta kaltetuak berak salatutako kasuak gainditzen dituzte arinki (% 45). Izan ere, immigrazioaren begiradarako tratatutako kasu gehienak CEAR Euskadi³ erakundeak gauzatutako ekimen baten barruan egin dira, kolektiboki borrokatzeko migratzaileei eragiten dieten etxebizitza eskuratzeko diskriminazioaren eta errefuxiatuen/asilo-eskatzaileen diskriminazioaren aurka.

Kasuaren hasiera begiraden arabera



Bestalde, ijitoei dagokienez, eta 2016an bezain modu nabarmenean ez bada ere, ikusi da erreferentziatzko erakundeek zeregin garrantzitsua dutela kasuen irekiera beren gain hartzerakoan (bost kasutan hartu dute bere gain; kaltetuak berak, berriz, sei kasutan). Antenek aurreko urteetako azalpen berberak eman dituzte: komunitate horretako pertsonen zailtasunak dituztela diskriminazio-kasuak salatzeko, batez ere egoera hori oso normalizatuta dagoelako pertsona horien artean; biktimek ez dituzte beren buruak halakotzat hartzen, eta, horrenbestez, ez dute uste salatzeko ezer dutenik.

Kasuei hasiera emateko moduarekin bukatzeko, nabarmendu beharra dago oso gutxi izan direla beste erakundeek sareko erakundeetako batera helarazitako kasuak. Etorkizunean egoera hobetzeko asmoz, beharrezkoa litzateke sarea zabaltzea eta beste entitate edota erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko sistemak edo protokoloak ezartzea.

³ Bi mailatako jarduera-estrategia da: batetik, Eraberean Sarean, eta, bestetik, atzeritarrek etxebizitza eskuratzeko arazo espezifikoetan esku hartzen duten erakundearen inguruan koordinatutako eta egituratutako ekimen batean.

Donostia, 2017ko martxoa. Ospitaleko mediku batek paziente ijito bati eginiko komentario arrazistak.

2017ko martxoaren 16an, AGIFUGI elkarteko profesional batek (hezitzailea) elkarte horretako programa baten erabiltzaile den ijito-familia bati lagundu zion Donostia Ospitaleko mediku anestesista baten kontsulta batera. Kontsultak iraun zuen denboran, artatu zituen medikuak pazienteari buruzko komentario arrazistak egin zituen: "Beste errumaniar bat? Jende hau hona etortzen da eta, gainera, guk ordaindu behar diegu dena; hauek jasotzen duten hezkuntza eta laguntza nik nire diruarekin ordaindu behar ditut! Zerbitzu hau nik ordaintzen dut, eta zergatik ez diete ematen bertakoei eta bai atzerritarrei?".


Ondoren, hezitzailearen profesionaltasuna zalantzan jarri zuen; nor zen galdetu zion, zergatik egiten zuen lan hori eta lekuz kanpoko beste komentario bat egin zion: "ziur dena emango diezula".

Kontsultatik irtendakoan, hezitzaileak kexa formal bat jarri zuen Pazientearen Arreta Zerbitzuan. Geroago, ospitaleko langileen arduradun gisa aurkeztu zen pertsona batek telefonoz deitu zion hezitzaileari barkamena eskatzeko emandako zerbitzuagatik; esan zion medikuari kargu hartu ziotela jokabide baztertzailea izan zuelako.

Txosten hau idazterakoan, ez da idatzizko erantzunik jaso ospitalearen aldetik profesionalak jarritako erreklamazioari dagokionez■

Bada txosten honetan nabarmendu nahi dugun beste aldagai bat: artatutako pertsonen profila. Datuak⁴ bereizteko orduan, kontuan hartu da pertsona horiek zer eremu geografikotatik datozen (hurrengo grafikoa) eta zer sexutakoak diren (beherago).

Artatutako pertsonaren profila Jatorrizko eremu geografikoa




Artatutako pertsonen %41 espainiar estatukoak dira, eta gainerakoak (%59) atzerriarrak.

Lehenengo kategorian daude ijitoak eta LGTBI kolektiboko pertsona gehienak.

Bigarren kategorian, LGTBI kolektiboko hiru pertsona daude; horiek Eraberean Sarera jo zuten baldintza horrekin lotutako egoerak salatzeke. Artatutako gainerako pertsonak jatorri- edo etnia-arrazoiengatik diskriminatzeagatik artatu ziren.

⁴ Artatutako pertsona guztien kopurua kasu guztien kopurua baino handiagoa da; izan ere, pertsona bati baino gehiagori eragiten diete (pertsona talde bati, bikote bati, familia bati, kolektibo bati...). Nolanahi ere, kaltetutako pertsonen kopuru errealak txosten honek aurkeztutako kopurua gaiztatu du, ezinezkoa baita datu bat ematea diskriminazio-/arbuio-egoera batek talde edo kolektibo oso bati eragiten diotenean. "Jatorrizko eremu geografikoa" aldagairako, kasuak zenbatu dira, eta ez pertsonak. "Sexua" aldagairako, pertsonak zenbatu dira; izan ere, kasu batzuetan bazegoen informazioa kaltetutako pertsonen kopuruari buruz.

Artatutako pertsonaren profila Jatorrizko eremu geografikoa begiraden arabera



Atzerritarren artean, Latinoamerika da ordezkartza handiena duen kontinentea, tratatutako kasuen % 22 hartzen baititu (13 kasu Immigrazioa begiradarako eta 3 LGTBI begiradarako). Iazko datuekin alderatuta, areagotze hori Euskadira Venezuelatik datozen errefuxiatuak/asilo-eskatzailleak iristeari zor zaio hein handian, bai eta atzerritarrei etxebizitzak alokatzeko dituzten zailtasunei ere, jabeek eta/edo higiezin agentziek ezezkoa emateagatik. Latinoamerikarren artean, Nikaraguako emakumeak ere badaude, etxeko langileak; batzuek lan-eremuan mota askotako diskriminazio-egoerak jasan izana adierazten dute.

Afrika Beltza dago bigarren jatorrizko eremu geografikoaren zerrendan; guztiaren % 19 dute, hots, 14 kasu. Immigrazio begiradarako artatutako kolektiboen buruan daude, halaber. Latinoamerikaren kasuan gertatzen den moduan, kontinente horretatik etorritako errefuxiatu/asilo-eskatzaille ugari iritsi dira eta alokairuko etxebizitza eskuratzeko diskriminazioa jasan dute. Horrek azaltzen du datua.

Artatutako pertsonen % 8 Europako herrialdeetatik datoz, sei kasu izan baitira. Kasu guztietan, ukrainarrak dira (asilo-eskatzailleak dira eta etxebizitza eskuratzeko diskriminazioa jasan dute haiek ere). Magrebtar kolektiboak, aurreko urteetan ez bezala, 4 kasu erregistratu ditu soilik (guztizkoaren % 6), nahiz eta horietako bat komunitate osoari dagokion, "Moros fuera" (Mairuak kanpora) aipamena egiten duen

pintada bati buruzko kasua baita. Azkenik, Asia dago, hiru kasurekin. Ehuneko baxuena du (guztia % 4); hala ere, kasuetako bat prestakuntza-zentro batean zortzi gazte pakistandarren talde bati gertatutakoari buruzkoa da.

**Artatutako kasuak,
jatorrizko herrialdearen arabera**


Venezuela	7	Nigeria	1
Ukraina	6	Aljeria	1
Nikaragua	4	Pakistan	1
Maroko	3	Somalia	1
Eritrea	3	Txina	1
Senegal	2	Siria	1
Kamerun	2	Hego Sudan	1
Ginea-Konakry	2	Ginea Bissau	1
Honduras	1	Sierra Leona	1
Kolonia	1	Bolivia	1
Argentina	1	Brasil	1

Vitoria-Gasteiz, Eritreako emakume errefuxiatuek alokairuko etxebizitza eskuratzeko diskriminazioa jasan zuten.

Egoerak Eritreako hiru emakume errefuxiaturi eragiten die (birkokatzearen ondorioz iritsiak dira); horietako bik haurrak dituzte. Hiru kasuetan, zailtasunak dituzte alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko, haien nazio-jatorria eta etnia direla-eta. Aipatu dute partikularrei eginiko dei gehienetan deia moztu dietela elkarrizketa

bat hasi dutenean, eta higiezin agentzietatik ez dutela erantzunik jaso. CEAR Euskadi erakundearen etxebizitzarako bitartekaritza taldeak higiezin agentzia batera eginiko dei batean erantzun zieten pisu batek betetzen zituela bilatutako ezaugarriak eta higiezin agentziara joan behar zela 10 euro ordaintzera, erakutsi ahal izateko. Emakumeak higiezin agentzian aurkeztean, afrikarrak zirela ikusitakoan, langileak ez zien eskatu bisitarako dirurik eta CEAR erakundeko teknikariarekin hitz egingo zuela esan zien. Harremanetan jarritakoan, aipatu zuen jabeak esan ziela ez ziela alokatu nahi, iraganean esperientzia txarrak izan zituelako emakume afrikarrekin■

Artatutako pertsonaren profila Sexua




Zerbitzatutako pertsonak aztertzen jarraituz gero, ikusiko dugu sarean salatutako kasuek 52 gizoni (guztien % 64) eta 28 emakumeri (guztien % 34) eragin diela gutxienez eta bitarrak ez diren hiru pertsonari soilik⁵.

Jarraian agertzen den grafikoan ikus daitekeen moduan, deigarria da gizonen eta emakumeen arteko alde hori; bereziki, LGTBI kolektiboan da handia (bi emakume eta

⁵ Erregistratutako hiru kasuetan, transexualak dira.

hamazazpi gizon), bai eta, hein txikiagoan bada ere, immigranteen edo errefuxiatuen kasuan ere (16 emakume eta 30 gizon). Ijitoen kasuan, berriz, alderantzizko joera ikusi da, emakumeak gizonak halako bi baitira. Horren azalpena da antenetara merkataritza-lokaletan eta dendetan tratu iraingarriak edo diskriminaziozkoak jasan dituzten emakume ijitoen hainbat kexa iritsi direla.

Artatutako pertsonaren profila Sexua begiraden arabera



Bilbo, 2017ko urria. Diskriminaziozko tratua bi emakume ijitori supermerkatu batean.


Bi emakume ijito Santutxu auzoko supermerkatu batera sartu ziren erosketak egitera, eta hasieratik establezimenduko saltzaileetako bat haien atzetik hasi zen lokalean, erosketa-orgatxo batekin. Era berean, beste saltzaile batzuk elkartu ziren, korridoreetatik haiei jarraitzeko. Bi emakumeek erosketak egin zituzten, eta, besteak beste, urdaiazpiko-pakete bat erosi zuten hestebeteen gunetik. Bikotea ordaintzera joan zenean, langileetako bat urdaiazpiko-paketea erakusmahaiko zintan zegoen edo ez egiaztatzen hurbildu zen.

Ondoren, emakumeetako bat itzuli egin zen, produktu bat ahaztu zitzaielako, eta une horretan, arreta eskaini zien kutxazain batek lankideei zerbait esan zien, erosketak bereizteko karteltxo batekin ahoa estalita, ez ikusteko nola abisatzen zien bezeroa zaintzeko. Salatzailea kexatu egin zen, suminduta, eta erreklamazio-orria eskatu zion kutxazainari; azken horrek ezezkoa eman zion, une horretan eskuragarri ez zituztelako aitzakia jarrita. Une horretan arduraduna etortzeko eskatu zuen eta hura oihuka eta kutxazainarekin barrezka atera zen. Adierazi zion arratsaldeko 6ak aldera itzultzeko, orduan dendan izango zituztela eta. Adierazitako orduan itzuli zen, eta, orduan ere, ez zituzten eskuragarri. Hiru egunera, supermerkatua itzuli zen eta esan zioten erreklamazio-orriak ez daudela gertakari mota horietarako. Salatzailea kate bereko beste supermerkatu batera joan zen orria eskuratzera, baina jakinarazi zioten erreklamazioa arazoa sortu den lekuan egin behar duela. Horregatik guztiagatik, arduradunari deitu zion telefonoz salaketa bat jarriko zuela esateko, eta hark, erdi jolasean, erantzun zion oso ondo iruditzen zitzaiola eta salaketa jarri behar bazuen bere izen-abizenak ere emango zizkiola.


Nevipen elkarteko kideak supermerkatua joan ziren eta bilera bat izan zuten dendako arduradunarekin; azken horrek azpimarratu zuen ez zuela jakinarazitakoaren berririk. Jakinarazi zitzaion elkarteko kideak zein ziren eta zer gisa aurkeztzen ziren, kaltetuak aipatutako diskriminazio-jarduerak nabarmendu zitzaizkion, baita bezeroen esku erreklamazio-orriak ez izatea arau-hauste zigortzailea dela ere. Emakumearekin bitartekaritza egitea eskaini zitzaion, baina ez zitzaion egokia iruditzen, bere esanetan ez zituelako gertakariak gogoratzen ■

Diskriminazio motari dagokionez, 64 kasutan (% 88) zuzeneko diskriminazioa egin da. Lau kasu zeharkako diskriminazioko egoerak izan dira, eta beste bost, asoziazio bidezko diskriminazioak.

Diskriminazio-mota



Diskriminazio-mota begiraden arabera



Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsaila, inauteriak.


Bi mutil etxera zihoazen, lanetik irtenda, 2017ko otsailaren 25etik (larunbata) 26ra (igandea) bitarteko gauean, 03:00 aldean, eta hiru pertsonarekin gurutzatu ziren. Pertsona horiek irain homofoboak oihukatzen hasi zitzaizkien. Kaltetuek, hasiera batean, ez zieten erantzun eta ez zieten jaramonik egin, baina beste hiru pertsona gerturatu zitzaizkien eta haien bidean jarri ziren, irain homofoboekin jarraituz. Hori ikusita, kaltetuek beren jarrera aurpegiratu zieten, eta besteek, ondorioz, fisikoki eraso zieten (ostikadak, ukabilkadak...). Biktimek poliziari deitu zioten; polizia-autoan bueltaka aritu ziren erasotzaileak aurkitzeko. Ez zuten lortu, baina erasotzaileetako baten telefono mugikorra aurkitu zuten. Igandean, larrialdietara joan ziren lesioen partearen bila.

Biktimak Gasteizko Aldarte erakundearen bulegoarekin harremanetan jarri ziren, kasuaren berri eman zieten eta dokumentazioa aurkeztu zuten. Antenak sarearen eta haren funtzionamenduaren berri eman zien, eta haiekin hainbatetan elkartu ziren laguntza emozionala emateko (Gasteizko elkarteren batek eraso salatzeko elkarretaratze bat egin nahi izan zuen, baina biktimek nahiago izan zuten anonimatuan jarraitu).


Era berean, sareari kasuaren berri eman zitzaion aldi berean, Aldarte elkarteko abokatua haiekin harremanetan jarri zen, salaketa jartzeko aukera baloratzeko, ez baitzuten salaketarik jarri. Azkenik, aholkularitza eskaini zitzaaien eta salaketa jartzen lagundu zitzaaien. Salaketa izapidetzeaz arduratu zen Instrukzio Epaitegiak eginbideari ekin zion funtsezko eskubideen aurkako delitu batengatik (ZK-ko 510. art.) eta lesioengatik. Erasotzaileetako baten nortasuna jakin ondoren (ezin izan zen beste bien daturik aurkitu), Epaitegiak hitzordua jarri zion, baina gaur-gaurkoz (txosten hau egin den datan) ikertua ezin izan da lokalizatu eta prozedura geldituta dago hura lokalizatu arte■

Diskriminazioa zer arlotan gertatu den aztertuz gero, kasuen % 89 eremu pribatuan gertatu dira, eta % 11 eremu publikoan (zortzi kasu).

Diskriminazio-eremua




Diskriminazio-eremua begiraden arabera




Arlo publikoan gertatutako zortzi kasuetatik bi polizia-zerbitzuen jarduerekin lotuta daude eta LGTBI kolektiboko pertsonei eragin diete (transexualak), lautan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua egon da tarteetan (tratu iraingarria edo diskriminaziozko tratua ijito etniako pertsonei edo LGTBI kolektibokoei) eta bat lan-arlokoa da: Itsasoko Gizarte Institutua dago tarteetan, eta immigranteen kolektibo bati eragiten dio (Senegalgoa). Azkenik, kasu bat estatuko telebista-kate baten praxi okerrarekin lotuta dago, eta ijitoen komunitateari eragin dio. Hain zuzen, 2016an irekitako kasu bat da, eta haren jarduketak 2017an zehar egin dira.

Eremu publikoa



Eremu publikoa begiraden arabera



RTVE Radio y Televisión Española erakundeak 2016ko azaroaren 25ean telebistaz emandako erreportajea, ijito-komunitatea auzo-gatazkekin eta indarkeriarekin lotzen duena.

RTVE Radio y Televisión Española erakundearen *Teleobjetivo* izeneko programan, *Vecinos en pie de guerra* (auzokideak borrokarako prest) izeneko erreportajea eman zen 2016ko azaroaren 25ean. Erreportaje horretan, ijito-komunitatearen irudi desitxuratu bat ematen da, bereziki Euskadikoena, bertan azaltzen denaren arabera direnak baino gehiago baitirudite egoera gatazkatsuekin, gizabidearen kontrako egoerekin eta indarkeriazko nahiz delinkuentziazko egoerekin lotura duten pertsonak eta familiak. Horretaz gainera, behin eta berriz erabiltzen da estereotipatutako irudiz eta konnotazio deitoragarriak betetako hizkuntza (guda, klanak, familia gatazkatsuak), horrek auzoen arteko liskarrak pizten ditu, eta ikuskizun bihurtzen da.

Gainera, narratzaileak off-eko ahotsean esaten duen hau iraingarria da eta, ondorioz, onartezina: "Euskadin, ijito-klanek izua eragiten dute kokatzen diren auzoetan".

Orokortze hori erabat okerra da, alderdikoia, estereotiporik okerrenak elikatzen ditu, eta ez dator bat, inondik inora ere, Euskadin normaltasunez bizi eta elkarbizitzan ari diren ijito-familia gehienek errealtatearekin. Arestian aipatu dugunaren moduko baieztapenak egitean, alde batera uzten ari dira bai Espainiako Prentsa Elkartearen Federazioaren Kode Deontologikoan jasotako gomendioak bai eta RTVEren Estilo Liburuan bertan jasotakoak ere.


Eraberean Sareak erabaki du lehentasuna ematea Euskadin Ijito Herriaren Sustapen Integralerako eta Parte Hartze Sozialerako Kontseiluan ordezkaturako ijito-elkarteek erantzuteari. Horrela, bada, laguntza teknikoa eman zitzaien, Arartekoari, RTVEko Euskadiko lurralde-zuzendariari, eta Ikuslearen, Entzulearen eta Erabiltzailearen Defendatzaileari zuzendutako idazki bana idazteko.

2017an, RTVEko Euskadiko lurralde-zuzendariaren barkamena jaso zen telefonoz, eta erreklamazioa Madrilgo zuzendaritza nagusiari helarazi zaiola jakinarazi zuen. Bestalde, Ikuslearen Defendatzaileak barkamena eskatzeko gutun bat bidali zuen eta jakinarazi zuen telebista-programaren ekoizle arduradunari jakinarazpen bat bidali zitzaiola gaiari buruz. Arartekoaren jardunari dagokionez, erreklamazioa Madrilgo Arartekoari bidali zion, eta hark, era berean, Estatuko Gobernuko Arraza edo Etnia Jatorriagatiko Diskriminaziorik Eza Sustatzeko Kontseiluari helarazi zion.


Txosten hau idazteko garaian, kexa horri buruzko erantzunaren zain gaude ■

Eremu pribatuan sortutako egoerak honako kategoriatan bana daitezke:

Eremu pribatua



Eremu pribatua begiraden arabera



Ikus daitekeen moduan, kasu gehienak (% 46) Etxebizitza arloan gertatu dira. Kategoria horretan sartu dira higiezin agentziek eginiko alokairuko etxebizitza eskuratzeko diskriminazio-egoerak, bai eta etxebizitzaren jabeak zuzenean inplikaturik daudenak ere. Kasu askotan jasan dute pertsonak/familiak diskriminazio mota hori bi modalitatetan: higiezin bitartekaritza, errentariekin harreman zuzena. Horietako bakoitza kasu bakar gisa zenbatu da, diskriminazioa une eta espazio desberdinetan gertatu arren. Kasu horiek guztiak atzeritarrei eragin diete (batik bat errefuxiatuei/asilo-eskatzailaei).

Alokairuko etxebizitza eskuratzeko diskriminazioari dagokionez, gogorarazi behar da Eraberean Sarearen aurreko txostenetan azpimarratu dela jarduteko modu hori (oso zabalduta eta hein batean zigorrik gabea), eta garrantzitsua dela berariazko lan-ildo bat

ezartzea jardueraren hiru dimentsioetatik lantzeko: sentsibilizazioa, prestakuntza eta arreta. Halaber, eta kapitulu honetako beste atal batean aipatzen den moduan, 2017an sentsibilizazio-kanpaina bat egitea erabaki da CEAR Euskadi elkarteak proposatuta. Kanpaina hori 2018an egingo da.

Etxebizitza arloaren atzetik, Bide publikoa dago (kasuen % 15). Arlo hori jokabide homofobo edo arrazisten agertoki gisa nabarmentzen da. Kaleetan, auzoetan, garraiobideetan edo espazio publikoetako ekitaldi artistikoetan pertsonenganako jarrera intoleranteak izaten dira beren identitate edo sexu-orientazioagatik, edo immigranteak arbuiaitzeko adierazpenak egiten dira haien etnia-jatorriagatik; gainera, intolerantzia eta arbuiaitze horiek eraso fisikoaren muturreraino ere irits daitezke. Gorroto-adierazpen mota horiek LGTBI kolektiboko pertsonen eragiten diete bereziki.

Bestalde, Komunikazioa eta Internet arloan ere sei kasu erregistratu dira (guztien % 9): hiruk ijitoen eragin diete eta beste hiruk LGTBI kolektiboko hiru pertsonen.

2017ko abendua

Ijito-komunitateko pertsona batek telebista-programa batean parte hartu zuen. Telebistan egiten diren talentu-programa askotako bat zen. Pertsona horiek komentario iraingarriak jaso zituen sare sozialetan. Ijito-kulturarekin zuzenean lotutako komentarioak ziren. Eraberean Sareko antenak kasua lantzea erabaki zuen, kaltetutako pertsonaren familiarekin harremanetan jarrita. Eskura dituen baliabideen berri eman zaio, bai eta kasua tratatzeko aukeren berri ere.

Familiaren erabakia izan da hasiera batean izapiderik ez egitea. Eraberean Sareko antenak bere kabuz jarraipena egitea erabaki zuen, familiarekin harremanetan jarraituta ■

Donostia, 2017ko urria. Eraso eta irain homofoboak pertsona bati sare sozialetan.

Gehitu elkarteko kide batek Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen batekin bat egin zuen, hainbat proiektu babesteko xedearekin pertsonen borondatezko dohaintzak biltzeko. Kasu horretan, proiektua hau zen: elkartearen magazinean eta webgunean argitaratuak zituen eduki lesbikoko komiki-istorioen bilduma egitea paper-euskarrian. Sare sozialetan funtsak biltzeko prozesuari ekin ondoren, irain homofoboak eta mehatxuak jasotzen hasi zen Twitter bidez. Kaltetuak horren berri eman zuen Ertzaintzan eta Epaitegian. Poliziak erantzun zion “irainak beren eskumenetik kanpo” zeudela eta Epaitegira deitzea eta gaia azaltzea gomendatu zioten. Epaitegian jakinarazi zioten irainak ez zirela salagarriak; kasu horretan kereila bat izango zela egokiena eta horretarako abokatua eta prokuradorea beharko zirela. Kaltetuak erabaki zuen prozedurari ez ekitea eta prentsa-ohar bat bidaltzea. Prentsa-oharrak hau zioen:

“L.S.B, Ana iEl lesbicómic!” editatu egingo da, sare sozialetan jasotako eraso homofoboak gorabehera.

Irailaren 14an eman zen Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako META! kanpainaren berri, “L.S.B, Ana iEl lesbicómic!” izeneko emakume lesbiana bati buruzko komikia argitaratzeko. Harrezkero, sare sozialetako erabiltzaile batzuek ekimenari eraso diote mezu homofobo, lesbofobo eta matxistekin.

Egilearen profil pertsonalean jasotako mezuek erakusten dute oraindik ere asko dagoela egiteko gure gizartean sexu- eta genero-aniztasuna normalizatzeko, gutxiengoak (esaterako, emakume lesbianak) ikusgarri egitea lortzeko eta gizaki guztien berdintasuna errespetatzen duen bidezko gizarte bat lortzeko, horien sexu-orientazioa, sentitutako sexua, arraza, erlijioa edo jatorria edozein delarik ere.

Oinarririk eta argumenturik gabeko irain horiek animatu besterik ez gaituzte egiten emakume lesbiana gisa eta oraindik ere diskriminazioa jasaten duen



kolektibo bateko kide gisa (LGTBI kolektiboa) ditugun eskubideen alde borrokatzeko Gehitu elkartetik. Hain zuzen, elkarre hori da berdintasunaren aldeko borrokaren buru duela hogeitiki urtetik baino gehiagotik.

Eraso horiek gorabehera, ekimena gauzatu egingo da; izan ere, proiektua hasi zenetik hamar egun eskasean, aurrera ateratzeko gutxieneko aurrekontua bildu du eta aurrekontu egoki bat lortzeko borrokan jarraitzen du.

“L.S.B, Ana iEl lesbicómic!” komikiaren argitalpenari lagundu nahi badiozu, bisitatu webgune hau: <http://goteo.cc/lsbana>” ■

Enplegua arloko diskriminazioei dagokienez, bost kasu zenbatur dira (% 8). Guztiek atzeritarrei eragin diete; sarritan lantokian abusu-egoeren biktima izan dira, eta askotan xantaiak, mehatxuak eta/edo irain arrazista eta xenofoboak ere jaso dituzte. Fenomeno horrek etxeko langileei eragiten die bereziki (etxeko zerbitzua eta zaintzak).

Donostia, 2017ko martxoa. Abusuzko tratua eta diskriminazioa etxeko langile atzeritar baten kontra.

M.C. barneko etxeko langile gisa hasten da lanean 2015eko azaroaren 24an. Hasieratik, ez zaizkio errespetatzen legeaz dagozkion atsedenaldiak: gau guzti-guztiak bertan igaro behar ditu, salbuespenik gabe. Askotan bere eguneko bi ordu libreak hartzen ere ez diote uzten. Bat-batean kaleratu egiten dute, aldezturik jakinarazi gabe eta abusuzko tratua emanez: egun batean, arratsaldeko bostetan, jakinarazten diote bere lan-harremana bukatu dela, eta jarraian kalera botatzen dute bere gauza guztiekin, lotarako lekuri eman gabe.

Bost egun beranduago salaketa jartzen du Donostiako 4 zenbakiko Instrukzio Epaitegian (Guardiako Epaitegi gisa zegoela). Hau dio salaketak: “2017ko martxoaren 31n, XXXX(r) en seme-alabek eta errainak (helbidea: XXX, Donostia) esan zioten ordu laurden zuela bere gauzak hartu eta etxetik alde

egiteko, ez zutelako nahi berentzat lan egiten jarraitzea. Telefono mugikorra kendu zioten eta “emigrante zikin” bat zela esan zioten. Salaketarik ez jartzeko esan eta mehatxatu egin zuten; semeetako bat bera jotzen saiatu zen”.

Horrez gain, M.C.k aipatzen du enplegu-emaileek hitzeman ziotela bere administrazio-egoera erregulatzeko behar zen guztia egingo zutela, baina ez dutela halakorik egin. Dena den, aitortzen du bere herrialdetik etorritakoan egindako dokumentazio-eskaerak sorrarazitako gastuak ordaindu dizkiotela.

Kasu honetan, elementu funtsezkoena lan-harremana da, baina Erabereanek uste du kalteberatasun bereziko egoera dela, *emakumea* eta *etorkina* delako, *etxeko enpleguan* lan egiten duelako eta *administrazio-egoera irregularrean* dagoelako. Hori dela eta, diskriminazio anizkoitzeko egoera bat da. Horren guztiaren ondorioz, enplegu-emaileak gehiagotasun-harremana ezartzen du, abusuzko eta diskriminaziozko jarrera eta jokabideak erabiliz ■

Zerbitzuak-Merkataritzako lokala kategorian (% 8), tratu iraingarri/diskriminaziozko/abusuzko hori supermerkatuetan aurkitu dugu, gehienbat ijitoen aurka, eta kasu batean gizon magrehtar baten aurka (kasu batzuk txosten honetan ageri dira).

Kasu bat erregistratu da Zerbitzuak-Aisialdiko lokala kategorian ere: LGTBI kolektiboko pertsona bat da. Gainerako kasuak (zortzi, guztira) askotarikoak dira: gazte pakistandarren aurkako arbuio-jarrerak eta haien kulturarekiko mespretxua prestakuntza-zentro batean (ikaskideen eskutik), Gasteizko auzo batean ijito-familia bati ostatu ematearen aurkako manifestazioak, eta auzoan edo lantokian⁶ LGTBI kolektiboko pertsonen aurkako jazarpeneko edo gorroto-adierazpeneko kasuak, besteak beste.

⁶ Azken kasuistika hori ez da sartzen Enplegua kategorian; izan ere, lan-jardunarekin/-harremanarekin zerikusirik ez duten jarrerak dira eta ez dute eraginik arlo horretan.



Santurtzi, 2017ko uztaila. Pertsona transexual batek irainak eta erasoak jasan ditu.

Gertakariak salatu dituen pertsonak (biktimaren ama) adierazten duenez, 2017ko uztailaren 15eko arratsaldean bere semea (mutil transexual bat) parrandan zebilen bere lagunekin; orduan, bi mutil gerturatu zitzaizkion. Bietako batek hau galdetu zion: "Zergatik daukazu txilibitu-ahots hori? Neska zara? Edo maritxua?". Hori ikusita, biktimaren lagunak erasotzaileei esan zioten "bakean uzteko". Orduan, erasotzaileetako batek edalontzian zeraman edaria bota zion aurpegira gazteari. Hark aurpegia babestu zuen eskuekin eta besaurreekin, eta erasotzaileak ukabilkadak eman zizkion buruan, garondoan eta bizkarrean (kolpeak oso mingarriak ziren, eraztunak zeramatzalako).

Erasotzailearen lagunak geldiarazi egin zuen, uzteko esanez, "trabelo" bat zela. Biktimaren amaren adierazpenen arabera, erasotzaileak gaztea mehatxatu zuen, salaketarik ez jartzeko esanez.


Gertakarien egunean bertan, biktimaren amak Ertzaintzara deitu zuen, eta ertzainak inguruan patruilatu zuten, baina ez zuten ezer lortu. Ondoren, esan zioten larrialdietara joateko eta lesioen partearekin salaketa jartzeko.

Kaltetuak eta haren amak San Juan de Dios ospitaleko larrialdi-zerbitzuko lesioen parte utzi zuten kasua jaso zuen Eraberearen antenan (Errespetuz), baina biktimak eskatu zuen esku-hartzerik ez egiteko; gertakariaren datuak jasota geratzea nahi zuen soilik■

Sareko antenek artatutako diskriminaziozko kasuak kuantitatiboki aztertze aintzat hartu den azken aldagaia urratutako eskubideena da.

Grafikoan ikus daitekeen moduan, 2017an sarean artatutako kasuetan gehien urratutako oinarritzko eskubidea etxebizitza eskuratzeko eskubidea da. Urraketa hori etxebizitzaren jabeek eta higiezinaren agentziek egin dute, eta aipatutako 31 kasuetatik 30etan atzerritarrek jasan dute. Beste kasua Gasteizko auzo batean ijito-familia bati ostatua emateari bizilagunen elkarrekin erakutsitako gaitzespenarekin lotuta dago. Kasu honetan, urratutako lehen eskubidea familia horren intimitaterako eskubidea izan arren, adierazpen horiek zeharka eragin diote etxebizitza izateko eskubideari⁷.


Urratutako eskubideak



- Intimitatea 25 ■ Duintasuna 5 ■ Etxebizitza 31
- Osotasun fisikoa 7 ■ Lana 6 ■ Babes judiziala 2
- Osotasun morala 1 ■ Osasuna 4

⁷ Kasu hau ez da sartu Etxebizitza arloan, auzo-ingurune bateko adierazpenak izan direlako.

Urratutako eskubideak begiraden arabera



Gehien urratutako hurrengo eskubidea intimitaterako eskubidea izan da (25 kasu), eta hiru kolektibori eragin die. Eskubide hori, askotan, beste eskubide batzuen urraketaekin batera gertatzen da, edo intolerantzia-kasuetan eta pertsonen kontrako gorroto-/arbuio-jokabideak eta diskriminaziozko tratua eragiten direnean, kasuan kasuko kolektibokoak izateagatik baino ez. Batzuetan, arbuioaren “normalizazioak” (ijitoen kasuan) edo kalteberatasun-pertzepzioak/defendatzeko modurik ez dutelako usteak (administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinen kasuan) okerragotu egiten ditu egoera horiek. Halaber, egoera horiek duintasunerako eskubidea urratzea ere ekartzen dute, eta hori kontuan hartu da txosten honetan.

Osotasun fisikorako eskubidearen urraketa ere agertzen da Erabereanek duela hiru urtetik egiten dituen txostenetan: zazpi aldiz gertatu da, horietako seitan LGBTI pertsonen kontra. Aurreko urteetan bezala, gertakari horrek agerian uzten du kolektibo horrenganako intolerantzia indarkeria fisikoaren bidez adierazten dela askotan.

Kasu batzuetan urratu egiten da, halaber, lanerako eskubidea⁸; urraketa hori etengabea da etorkinen kasuan. 2017an sei kasu iritsi dira Eraberean Sarera. Kopuru hori

⁸ “Lanerako eskubidetzat” hartzen da, lan ordaindu bat izateko eskubideaz gain, bidezko lan-baldintzak eta lan-baldintza onak, hots, pertsonen duintasuna errespetatzen duten lan-baldintzak izateko eskubidea, langabeziaren aurkako babesa izateko eskubidea, diskriminaziorik gabe, soldata-berdintasunez, ordainsari duin batez, gizarte-babesarekin, eta abar.

bereziki baxua da, jakinda administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarren kontratazioak zer-nolako baldintza txarretan egiten diren, bereziki etxeko lanen eta zaintzen zerbitzuen esparruan. Beste urte batez, egoera horrek begien bistan jartzen du are lan handiagoa egin behar dela sarea zabaltzeko, non eta kontratazioak baldintza prekarioetan egiten diren sektore horietan, eta kontratatutako pertsonak era guztietako gehiegikeriak eta diskriminazioak jasateko arriskuan diren sektore horietan.

Sarearen antenek urte honetan jasotako kasuen kasuistikan berritasun bat egon da: Euskal Osasun Zerbitzuan bizitako egoeren salaketa. Guztira lau izan dira; horien arabera, pertsonen intimitatea urratzeaz gain, osasun-prestazioak baldintza duin eta errespetuzkoetan jasotzeko eskubidea ere urratu diete.

Azkenik, erregistratu diren kasuetako bitan babes judizialerako eskubidea urratu da (bi transexual) eta batean etorkin baten osotasun morala kaltetu da.

AZPIMARRATZEKO DA kasuak artatzeko jarduerari buruzko atal hau bukatzeko, Eraberean Sarean 2017an erregistratutako 76 kasuetatik, 4 kasu bideratu direla prozesu judizialera. 4 prozesu horietatik bat bera ere ez da amaitu 2017an; beraz, txosten hau idazten ari garen momentuan, ezin dugu horiei buruzko emaitzarik eman.

Bestalde, aurreko urteetan (2015 eta 2016an) abiarazitako kasu batzuen garapen judiziala 2017an gauzatu da, osorik edo partez. Horrela, Eraberean Sarean aurreko urteetan erregistratu eta prozesu judizialera bideratu ziren kasu horietatik, 6 kasu bukatu dira 2017an. Prozesu judizial horien emaitza honako hau izan da: 3 kondena-epai, 2 absoluzio eta kasu batean, jarduketak artxibatu dira.

Kondena-epaiei dagokienez, azpimarratzekoa da kasu batean kondena xenofobia delitu batengatik izan dela, Zigor-Kodearen 510.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta beste bi kasuetan, Zigor-Kodearen 22.4 artikulua zehazten duen astungarria aplikatu da, xenofobiagatik, kasu batean, eta sexu-orientazioagatik, bestean.

Hona hemen kasu horietako batzuk :



Bilbo, 2015eko abendua. Eraso eta irain arrazistak Metroan.

Egitateak 2015ean gertatu ziren, baina prozedura judiziala 2016an eta 2017an garatu da.

2015eko abenduan, emakume magrebtar bat metroa hartzera doa lanera joateko. Gabonak direnez, jende asko dago nasan. Metroa iristen denean, neska eta mutil talde batek bultza egiten dio metrora sartzeko. Berak bultza egin ez diezaiotela eskatzen die. Une horretan, taldekoak konturatu egiten dira atzerritarra dela. Trenera sartu eta esertzen denean, taldekoek emakumea inguratzen dute, irainka hasten zaizkio eta neskek iletik tiraka egiten diote. Metrotik jaisteko asmoz zirkulu horretatik ateratzea lortzen duenean, mutiletako batek bultza egiten dio eta lurrera erortzen da. Une horretan, metroko eta segurtasuneko langileak joaten dira eta anbulantziari deitzen diote, arta dezan.

Ondoren, biktimak salaketa bat jartzen du. Salatuak zitatuta daude, ikertu gisa deklaratzeko. Eraberean sareak bere gain hartu du abokatu-laguntza ematea eta, jarduerari dagokienez, laguntza juridikoa eman du adostutako izapide judizialetan. Izapideak egin ondoren, eta salaketa gurutzatuak zeudenez, Epaitegiak bitartekaritza judiziala baliatzea eskatu die aldeei, baina ez da akordioa lortu.

Ikustaldiaren egintza egin da 2017ko ekinaren 5ean, eta Getxoko 3 zenbakiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak 74/2017 Epaia eman du; horren bidez, egile guzti-guztiak kondenatu ditu Zigor Kodearen 147.2 artikuluan zehaztu eta zigortutako lesio-delitu arin baten egile gisa, lege-testu bereko 22.4 artikuluan ezarritako astungarriarekin■

Bilbo, 2015eko abendua. Eraso homofobia taberna batean.

Gertakariak 2015ean izan ziren, baina garapen judizial guztia 2016. eta 2017. urteetan izan da.

Erasotako gizonezkoa Bilboko taberna batean dago. Halako batean, haren ondoan dagoen beste gizonezko bati zerbait erortzen zaio lurrera. Erasotako pertsona makurtzen da, objektua lurretik hartzen du eta ematen dio, eskuaz hankan ukitutxo bat emanez, hura ohartarazteko. Une horretan, aldezturik ezagutzen ez duen beste pertsona horrek zera aurpegiratzen dio: "Adizu, ni ez naizela marikoia" (erasoa jasan duen pertsonak adierazten du berari ari zaiola, hori gertatu baino lehen erasotzaileak beste mutil batekin musukatzen ikusi baitu; horregatik esan dio hori). Erasotako pertsonak homofobia dela esaten dio, eta, horri erantzunez, beste pertsona horrek ukabilkada bat ematen dio begian. Erasoren lekukoak badira (laguna eta zerbitzaria), baina elkarriketaren lekukorik ez da. Hurrengo egunean, eraso jasan duen pertsona ospitalera joaten da, eta, ondoren, salaketa jartzen du.

Erabereaneko kide batek polizia-etxera laguntzen du eraso jasan duen pertsona, atestatua zertan den galdetzeko (zerbitzaria lokalizatzea eta erasotzailea identifikatzea) eta salaketa zabaltzen da.

Kasu honetan, horrek badu bere garrantzia; izan ere, hasiera batean lesio-delitu gisa izapidetu du Epaitegiak prozedura, eta, egitateen narrazioan, ez zen erasoaren alderdi homofoboari buruzko inolako aipamenik egin. Horrela, egindako errekurtsioa onartu da eta egitateak interesatzen zitzaigun bezala idatzi dira; are gehiago, fiskaltzak bat egin du horrekin, eta haren alderdi homofobia kontuan izan du eraso kalifikatzeko orduan.

2017an epaiketa egin da eta kondena homofobia izateagatiko astungarriarekin eman da, adostasunez; izan ere, erasotzaileak

egitateak aitortu ditu eta adierazi du sexu-orientazioa izan zutela arrazoi ■

Donostia, 2016. Irain arrazistak kafetegi batean.

Egitateak Donostiako kafetegi batean gertatu ziren, 2016an. Jatorri magrebtarreko emakume batek jasan zituen; zehazki, salatu du tratu iraingarria eta irain arrazistak jaso zituela lokalean.

2017an ikustaldia egin zen eta akusatua absolbitu egin zen ■

Vitoria-Gasteiz, 2016. Bi neska lesbiana diskoteka batetik kanporatuak.

Gatazka Gasteizko diskoteka batean sortu zen: aretoko atezainak bi neska kanporatu zituen bertatik, dantzatzeko pistan elkar musukatzen ari zirelako (haien bertsioaren arabera).

Atezainaren bertsioa erabat desberdina da. Haren arabera, nesketako bat mozkor zegoen eta lokaleko beste bezero batzuk gogaitzen ari zen; horregatik esku hartu zuen berak.

Neskek salaketa jarri zuten Gasteizko Udaltzaingoa. Ondorioz, irain-delitu arin posible batengatiko zigor-jarduketak abiarazi ziren. 2017an amaitu ziren, epaiketa batekin; bertan, lokaleko atezaina absolbituta geratu zen, epaileak ebatzi baitzuen ez zela frogatu lokaleko atezainaren jokabidea desegokia izan zenik, eta are gutxiago diskriminaziozkoa ■

Bilbao, 2016ko martxoa. Eraso arrazista supermerkatu bateko sarreran.

Gertakariak 2016ko martxoaren 21ean izan ziren, astelehenean,

Bilboko supermerkatu bateko sarreran. Jatorriz nigeriarra den gazte batek laguntza eskatzen du, saltokiaren atean eserita. 40-50 urte inguruko gizonezko bat pasatzen da eta garrasika hasten zaio: "Zoaz zure herrialdera! Zer egiten duzu hemen? Hau ez da zure herrialdea (...) Hemendik alde egingo duzu bai edo bai!. Jagolea saltokitik ateratzen da eta ustezko erasotzaileari joan dadila eskatzen dio. Azken horrek garrasika jarraitzen du, eta jagoleari eraso egiten dio ere. Une horretan, saltokitik jende gehiago ateratzen da, horien tartean, kudeatzailea bera. Pertsona horiek poliziari deitzen diote, Ertzaintzako patruila bat bertaratzen da eta erasotzaileari joan dadila eskatzen diote. Patruila joaten da, baita gazte nigeriarra ere. Hortik minutu gutxi batzutara, erasotzailea bueltatzen da eta jotzen saiatzen da, baina une horretan polizia itzultzen da eta galarazten du. Azkenik, Ertzaintzak polizia-etxera eramaten du, eta gazte nigeriarraren datuak hartzen ditu.

Biktima Eraberaean sareko antena batera joaten da, CITE-CCOO Bizkaia, hain zuzen ere, gertakari horren lekuko izandako emakumezko batek eta beste pertsona batek lagunduta; biak ere *Gentes del Mundo* plataformako kideak. Sare honetako abokatu bat jartzen da haren esanetara, eta salaketa bat jartzera laguntzen zaio.

Akusazio partikularreko idazkia aurkezten da, eta izapidetzeko onartzen da. Epaitegiak akordio batera irits daitezela eskatzen die aldeei. Ertzaintzaren txostenean delitua xenofobiazkoa dela idatzita dago. Erabereanek egiaztatzen du biktimak ez duela nahi akusatua kartzelara joan dadila, eta, horrenbestez, zigorra murriztea adosten da, eta akusatuak gertakariak onartzen ditu, askatasuna kentzeko zigorra eten ahal izateko. Biktimaren abokatuak (Eraberean) bi urteko urruntze-agindua eskatzen du, eta akusatuak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duenez, erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina 600 eurotara murriztea proposatzen da.

Halaber, 2017ko urtarrilaren 25ean, epaia ematen du Bilboko Zigor-arloko 2 zenbakiko Epaitegiak, eta horren arabera, akusatua kondenatzen da erresistentzia eta xenofobia delituen egile den aldetik■

2. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa

Ardatz honek erreferentzia egiten die sarearen informazio-, dokumentazio- eta hedapen-jarduera guztiei, baita instituzioei, gizarte-erakundeei eta gizarte zibilari prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza emateko jardueri ere.

Bi batzordek garatu dute lan-ardatz hau: **Informazio eta Dokumentazio Batzordeak** eta **Sentsibilizazio eta Prestakuntza Batzordeak**. Hala ere, batzorde horietako bakoitzaren lan-eremua ez da itxia, eta zenbaitetan elkartu dira proiektu eta/edo jarduera batzuk batera egiteko.

Edonola ere, aipatzekoa da ardatz honen inguruan egiten diren jarduera guztiak ez dituztela batzorde horiek gauzatzen.

Sareari buruzko informazioa emateko eta hori ezagutarazteko jarduerak:

Sareari buruzko informazioa emateari eta hori ezagutarazteari dagokionez, irismen desberdineko jarduketak egin dira, hainbat mailatan:

- *Sarearen Jarduerari buruzko 2016ko Txostena* egitea izan da, zalantzarik gabe, ildo horretan egin den lanik garrantzitsuena. Horretarako berariaz sortutako lan-batzorde bat egon da, eta sarea osatzen duten hainbat profesionalek hartu dute parte bertan (Informazio eta Dokumentazio Batzordeko kideez gain). Hona hemen zeregin horren inguruan gauzatu diren jarduera guztiak:
 - Txostena idaztea eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean txertatzea⁹. Txostenean jasota daude Eraberean Sareak bere bigarren urtean gauzatu dituen jarduera guztiak, eta helburu nagusi gisa

⁹ Esteka honetan eskura daiteke txostena: <http://www.euskadi.eus/erabereansarea>

du ikusgai jartzea sareak eta horiosatzen duten elkarteek 2016an eginiko lana.

- Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek txostena aurkeztea, prentsaurreko batean, 2017ko urriaren 4an. Eraberean Sareak ekitaldian hartu zuen parte, begirada bakoitzeko ordezkari batekin; haiek, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin eta Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariarekin batera, txostenaren xehetasunak eta ezaugarriak jakinarazi zizkieten hedabideei. Ekitaldiak oihartzun handia izan zuen prentsan.
 - Txostena argitaratzea, paperean (guztira 112 ale) eta bertsio digitalean, eta interesgune berezietan banatzea.
- Esparru honetan gauzatutako beste jarduketa bat izan da Erabereanen informazio-triptikoaren bertsio eguneratu eta hobetu bat egitea. Triptiko horren 5.000 ale inprimatu dira.
- Eraberean Sareari buruzko informazioa emateko eta hori ezagutarazteko lan horren esparruan, interes eta eragin bereziko beste zenbait jarduketa ere gauzatu dira:
- Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendari Ernesto Sáinz Lancharesek Eraberean Sarea aurkeztea 2017ko ekainaren 12an Zaragozan egin ziren *Igualdad de Trato y No Discriminación desde las Administraciones Públicas* jardunaldietan (Tratu Berdintasunaren Alde eta Diskriminazioaren Aurka Administrazio Publikoetatik).





eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA
RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN

Jornadas: *"Igualdad de Trato y No Discriminación
desde las Administraciones Públicas"*

Zaragoza, 12 de junio de 2017



ERABEREAN SAREA
AURKEZTEKO
ERABILITAKO
MATERIALEKO
DIAPOSITIBA BAT

- Eraberean Sarea aurkeztea *Bizikidetza Sustatzeko Kulturarteko Sare eta Plataformak* izeneko mintegi tekniko batean. Matiz elkarteak antolatu zuen mintegia, eta 2017ko urriaren 26an eta 27an egin zen, Getxon. Mintegian erkidego- eta estatu-mailako 14 hizlarik hartu zuten parte; horrenbestez, garrantzi bereziko foroa izan zen Eraberean Sarea eta egiten duen lana ezagutarazteko. Hona hemen topaketaren egitaraua eta parte-hartzaileen zerrenda:



URRIAK 26

10:00- 10:30: Hasiera Matiz Elkarteen eskutik.

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#)

10:30- 11:00: "RE(ntabilida)DES: Herritarren parte-hartzea, Bizikidetzeta eta Toki- administrazioa." Herritarren parte- hartzean aditua eta Kaleidos sarearen koordinatzailea. *José Ramón Sobrón.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#)

11:00- 13:30: Partekatu beharreko esperientziak: kudeaketa sistemak eta sektore publiko, sektore pribatua eta sektore sozialaren arteko aliantzak ezartzea gizarte- inklusioaren eta gizarte- kohesioaren eremuan.

o Immigrante, emigranteak eta errefuxiatuen arreta- zerbitzua (SAIER) Bartzelonako Udala. *Gloria Rendón.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Redes Interculturales Sarea (Andaluzia). *Manuel Vicente Sanchez*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Escuelas Interculturales Sarea. *Sonia Ortega*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Bartzelona Udaleko kultura- arteko BCN Programa. *Marifé Calderón*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

13:30- 14:00: Partekatu behar den 20 urteko esperientzia. Harresiak Apurtuz; Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE Koordinakundea. *Ignacio Fariña eta Naiara Vink.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#)

Laguntzaileak:



URRIAK 27

9:00- 11:45: Parte hartu duten sareen eta plataformen esperientzia: "Kudeaketa- komunikazioa- berrikuntza eta herritarren parte hartzeko guneak sortzea".

o Ciudades interculturales Sarea (RECI) *Daniel de Torres.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Escuelas Interculturales Sarea. *Sonia Ortega.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#)

o Bienvenidos Refugiados España. *Marina Delgado.*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Redes Interculturales Sarea (Andaluzia) *Manuel Vicente Sanchez*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#)

o ZASI Zurrumurruen Aurkako Sarea- Red Vasca Antirumores. *Amekadi.*

[SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Eraberean Sarea. *Javier Pérez.*

[SAREAREN AURKEZPENA](#) [ARGAZKIAK](#)

o Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia eta Getxo. *Andoni Louzao*

[ARGAZKIAK](#) [PILDORA](#)

o Bartzelona Udaleko kultura- arteko BCN Programa. *Marifé Calderón*

[HIZLARIAREN HITZALDIA](#) [ARGAZKIAK](#)

eta....

Sakatu irudian mintegiaren bideoa ikusteko

[ONDORIOAK](#)



- *Eraberean Sareak* "Tránsito y transgresión" izeneko artikulua argitaratzea prentsan, urriaren 21aren harira (Transexualitatea Despatologizatzaren Aldeko Nazioarteko Eguna).

Lehen ere aipatu den bezala, informatzeko eta ezagutarazteko lana hainbat mailatan egin da. Honenbestez, sarea osatzen duten elkarteek ere hainbat jarduketa gauzatu dituzte askotariko espazio anitzetan: jardunaldiak, jai-giroko guneak, azokak, topaketa irekiak, unibertsitate-erakundeak, ikastetxeak, hedabideak, argitalpen espezializatuak...

- **CEAR EUSKADI:** *El Correo* egunkariak Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira (2017ko martxoaren 21a) egindako eta argitaratutako erreportajea kudeatzea; bertan, Iñigo Urkullu lehendakaria eta jatorriagatik edo beren etnia/kulturagatik diskriminazioa jasan duten hainbat biktima agertzen dira. Erreportaje horretan, CEAR Euskadik ezagutzera eman du Eraberean Sarearen lana.

- **SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA:** Ikuspegik eta Biltzenek antolatutako jardunaldietan parte hartzea. Bilbon egin dira, 2017ko azaroaren 16an eta 17an, eta Eraberean Sareari buruz hitz egin da.
- **CITE:** Eraberean Sarearen lanaren berri ematea Euskadiko CCOO sindikatuaren hainbat ekitalditan. Azpimarragarrienak dira Bizkaiko Abokatuen Elkargoak martxoaren 8aren harira antolatutako “Trabajadoras, organizadas, mujeres empoderadas” jardunaldia (Langileak, antolatuak, emakume ahaldunduak) eta 2017ko apirilaren 26an eta 27an eginiko “Visibilización de las Empleadas del Hogar. Trabajadoras de Hecho y con Derechos” izeneko jardunaldiak (Etxeko langileak agerian jartzea. Egitatezko langileak eta eskubidedunak).
- **GURUTZE GORRIA:** Eraberean Sareari buruzko informazioa ematea erakundeak artatzen dituen kolektiboei eta harrera egiten dien errefuxiatuentzako eskoletan. Sareari buruzko informazioa zabaltzea *Youtuben* jarritako bideoetan eta sarearen roll-up bat egitea, egoitza nagusian ikusgai jartzeko.
- **KALE DOR KAYIKO:** sareak ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa etengabe ematea elkarteko erabiltzaileei eta elkarteak parte hartzen duen foro eta lankidetza-espazioetan.
- **GAO LACHO DROM:** sarea sustatzea elkarteak parte hartzen duen foroetan.
- **AGIFUGI:** sentsibilizazio-materiala diseinatzea eta zabaltzea, eta sarearen eta haren ekintza-esparruaren berri emateko kanpainak egitea Gipuzkoako ijito-komunitatean.
- **NEVIPEN:** sareari buruzko informazioa zabaltzea lan egiten duen espazioetan. Zehatzago: Otxarkoaga auzoko ikastetxeetako emakume ijitoen taldeak; Otxarkoagako gizarte- eta hezkuntza-mahaia; Irala auzoko gizarte- eta osasun-mahaia; Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako eta Gizarte Laneko graduetaiko ikasleak.
- **GEHITU:** askotariko informazio-jarduerak:
 1. Eraberean Sareari buruzko informazio- eta prestakuntza-saio bat egitea Gehitu elkarteko kideentzat (2017-10-06). Saio horretan xehetasunez

azaldu da zer den Eraberean, eta homofobiaren kasuistikari, egoera orokorrari eta dakartzan inplikazioei buruz hitz egin da.

2. Sarearen berri ematea Gehituren jarduera espezifikoetan eta Erabereanen triptikoak banatzea hainbat ekitalditan: Zinemaldia (Donostia, 2017ko iraila); Boluntariotzaren Azoka (Ignacio Barriola Zentroa, Donostia, 2017-10-18); Zinegoak (Gipuzkoako hedapena, Donostia, 2017ko martxoak 3, 4 eta 5); Harrotasunaren Antzerkia: Gipuzkoako bederatzi herritan.
- **ALDARTE:** sareari buruzko informazioa zabaltzea hainbat euskarritan:
 1. Erakundearen Facebookeko profila: Erabereani buruzko informazioa eta webgunerako esteka, sarea hobeto ezagutzeko.
 2. Sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko gorroto-delituei buruzko proiektu baten barnean gauzatutako "Gorroto delituei aurre egiteko bitartekaritza estrategiak: legetik haratago ikusmira" jardunaldien barnean, Aldarteko abokatuak Eraberean Sarearen lana aurkeztu du; zehazki, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko gorroto-delituen kasuan egiten duen izapidetze-lana. Guztira 35 pertsona bertaratu dira.
 - **ERRESPETUZ:** Informazioa zabaltzea eta triptikoak banatzea erakundeak parte hartzen duen hainbat espaziotan:
 1. Euskadin: Deustuko Unibertsitatea, Psikologia gradua (2017-02-06 eta 2017-03-29); Euskal Herriko Unibertsitatea, Mugen Gaietik (2017-12-01); Zinegoak Bilborock, "Mi Reflejo" dokumentala (2017-03-02); El Kultur de Bilbao (2017-03-13); Errespetuz komikiaren aurkezpena. "Saioz Saio" BiBA Bilbao (2017-03-15); Euskal Gazteriaren Kontseilua (2017-03-22); Errespetuz Marienera Basauri komikiaren aurkezpena (2017-05-17); Ermua (2017-05-20); Santurtziko LGTBI Harrotasunaren Eguna (2017-06-09/10) eta Bilbokoa (2017-06-28); Urnieta (2017-06-25); Ondarroa (2017-06-27); Transexualitatea Despatologizatzearen Aldeko Eguna (2017-10-22); GIBaren Nazioarteko Eguna. Informazio-stand bat jartzea Santurtzin, Eraberean Sarearen triptikoekin eta informazioarekin (2017-12-01).



2. Euskaditik kanpo: Valladoliden, 2017-04-15ean eginiko ISESUS-UEMCren¹⁰ Funtsezko Sexologiaren IV. Jardunaldien esparruan, *Berdindu!* zerbitzua eta Eraberean Sarea aurkeztu dira (zer diren eta nola egituratuta dauden). Biei buruzko triptikoak ere banatu dira.

Madrilen, 2017-11-18an eginiko FELGTBren¹¹ Kontseilu Federalean (2017ko udazkena), Errespetuz erakundea eta egiten duen lana aurkeztu dira, eta, horren barruan, Eraberean Sarea aurkeztu da, baita egiten duen lana, sarearen egitura, antenak eta abar ere.

Prestakuntza-jarduerak:

Hona hemen gauzatutako jarduerak:

- Prestakuntza irekia saretik kanpoko eragileei: 2017an Eraberean Sareko ordezkaritza batek Euskal Herriko Unibertsitateko Klinika Juridikoak antolatutako prestakuntza-mintegi batean hartu du parte, Eraberean Sareko Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearekin batera (Batzorde Juridikoa). Mintegia urriaren 5ean egin da, Unibertsitatearen Donostiako Campusean. Hau izan da mintegiaren gaia: *Zuzenbidea eta sexua-generoa sistema: ikuspegi feminista*.
- Sareko eragileei berariaz zuzendutako prestakuntza: 2016an egindako sareko kideen prestakuntza-beharrak aztertzeke prozesuaren emaitzekin bat etorriz, eta bertan identifikatutako behar batzuei erantzuteko asmoz, honako jarduketa hauek egin dira:
 1. Sareak landutako **kasuen analisiaren** inguruko prestakuntza-saioak, denboran etenik izango ez duen dinamika baten barnean. Hauek dira saio horien helburuak:
 - Elkarrengandik **ikasteko** espazio gisa erabilgarriak izatea.
 - Sarean ikusten diren kasu motak **gizarteratzea**.
 - Denek ezagutzea gauzatzen diren **estrategiak**.

¹⁰ Miguel de Cervantes Europako Unibertsitateko Funtsezko Sexologiaren Institutua

¹¹ Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioa

- Sareko **posizionamendu komunak** sendotzea.
- **Etorkizunean** antzeko kasuetan jarraituko diren **funtzionamendu-jarraibideak** ezartzea.

Dinamika horren xedea da zuzenean jasotzen diren kasuetan oinarrituta dagoen prestakuntza praktikoaren gabeziari erantzutea. Gabezia horren berri eman zuten, hain zuzen, sareko elkarteek.

2017an bi saio egin dira, irailaren 19an eta azaroaren 23an, eta bakoitzak lau orduko iraupena izan du. Horietan guztira hiru kasu landu dira (begirada bakoitzeko bat); elkarte hauek aurkeztu dituzte: AGIFUGIk (ijitoen begirada), Gehitu elkarteak (LGTBI kolektiboaren begirada) eta Biltzen eta Aldartek batera¹² (migratzaileen begirada).

KASUAREN ANALISIA (30')

IKUSPUNTUAK

- JURIDIKOA
- SENTSIBILIZAZIOA, PRESTAKUNTZA, BITARTEKARITZA
- KOMUNIKAZIOA, ERAGIN SOZIALA...
Ekintza-mota, nork?, noren izenean?
- KASUAREN BILAKAERA, HEDAPENA

SAIOAN ERABILITAKO
MATERIALEKO
DIAPOSITIBA BAT

¹² Kasu horretan Aldarteko abokatua aritu zen abokatu-laguntza ematen.

2. **GIBa eta Diskriminazioa** gai izan dituen prestakuntza-saio bat; 2017ko abenduaren 19an egin da, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan. Saioaren iraupena bi ordukoa izan da, eta Alcalá de Henareseko Unibertsitateko Klinika Juridikoko kide Paulina Ramírez Carvajalek gidatu du. Gehitu erakundearen laguntza izan da saio hori antolatzeko.

Konstituzioak eta diskriminazioaren aurkako Zuzenbideak arau-sare zabala osatzen duten arren, oraindik ere trabak daude



Traba instituzionalak eta lege-mailakoak, osasun publikoaren eskakizunak oinarritzat hartzen dituztenak



Barneko protokoloek eragindako trabak, zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko eta horietaz baliatzea eragozten dutenak



Jarrerari lotutako trabak, GIBa duten pertsonen aurkezpeneak oinarritzat hartzen dituztenak

PRESTAKUNTZA-
SAIOAN ERABILITAKO
MATERIALEKO
DIAPOSITIBA BAT



Ba al dago beste diskriminazio-motarik?

Hona hemen prestakuntza-saioaren egitaraua:



GIBa ETA DISKRIMINAZIOA

Egitaraua

- 1- GIBa eta diskriminazioa
- 2- Osasunagatiko diskriminazio-motak
 - a) Diskriminazio instituzionala eta lege-mailakoa (diskriminazioa lan-eremuan)
 - b) Jarrerazko diskriminazioa (informazioaren konfidentzialtasuna; proba medikoak nahitaez onartu beharra)
 - c) Beste diskriminazio-mota batzuk (barneko protokolo bidezkoak, asoziazio bidezkoak)
- 3- Zer egin diskriminazio kasuetan
- 4- Klinika Juridikoak artatutako diskriminazio-kasu errealak

DATA: abenduaren 19a, asteartea

TOKIA: Eusko Jaurlaritzaren egoitza, Vitoria-Gasteiz (Lakua I)

ORDUTEGIA: 12:00-14:00

HIZLARIA: Paulina Ramírez Carvajal, Alcalá de Henareseko Klinika Juridikoaren kidea.

Sentsibilizazio-jarduerak:

- 2017an burutu da Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Oinarrizko Gida¹³. Horren helburu nagusia zerbitzu publikoetako langileak gai horren inguruan sentsibilizatzea da. Gida horrek, bidenabar, lagundu egingo die diskriminazio-kasu izan daitezkeenak detektatzen.

Gida egiteko, sareko hainbat elkarteren ekarpenak erabili dira, eta honako atal hauek ditu: diskriminazioaren eta gorroto-delituaren kontra jarduteko oztopoak; tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako oinarrizko kontzeptuak; araudi-esparruak; Eraberean Sareari buruzko informazioa; diskriminazioaren eta/edo gorroto-delituaren esparruak; oinarrizko orientazioak; EAEko baliabide interesgarriak; “gorroto-delitu” kategorian sar daitezkeen zigor-kodeko delitu motak.

- Bestetik, CEAR Euskadik hala eskatuta, errefuxiatuek etxebizitza eskuratzeko jasaten duten diskriminazioari buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat egiteko proposamena egin da; izan ere, kasuistika hori askotan jasota dago antena horrek Arabako Lurralde Historikoan artatutako kasuen zerrendan. Hasierako proposamen horri ikuspegi zabalagoa eman zaio; izan ere, ohiko higiezinaren merkatuan alokairu-erregimenean etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunek antzera eragiten diete etorkinei eta ijitoei. 2018an kanpaina bat egitea erabaki da. Dena den, aldez aurreko fase bati ekin zaio, erabil daitezkeen euskarriak zehazteko: irudia, goiburua, eta abar.

Jarduera osagarriak

Eraberean Sarearen jarduerari buruzko kapitulu hau bukatzeko, aipatzekoa da, sareak planifikatutako jardueren osagarri gisa, antena batzuek ekimenak gauzatu dituztela hainbat esparrutan, batzuetan beren jarduera propio gisa eta beste batzuetan Erabereaneko beste elkarte batzuekin lankidetzan.

¹³ Gida sarearen webgunean eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/erabereansarea>

NEVIPEN

Prestakuntza-ikastaroa Aldarterekin: “Kolore bat gehitu ortzadarrari” kanpainaren barnean, beharrezkotzat jo da sexu- eta genero-aniztasunari buruzko sentsibilizazio-tailer bat egitea ijito-komunitatean. Horretarako, prestakuntza-prozesu bat jarri da abian Aldarterekin batera, elkarteko langile ijito eta ez-ijitoei zuzendua, elkartearen barrutik zenbait kontzeptu, terminologia eta abar hobetzeko eta elkartearen lanaren xede den ijito-komunitatea sentsibilizatzeko. Txosten honetako Jardunbide Egokiak kapituluan jaso da jarduera horri buruzko informazio gehiago.

ALDARTE

1. Eraberean Sareari buruzko hitzaldia EDE Fundazioko pertsonentzat (2017-12-04). Hitzaldi horretan, azaldu da sarea nola sortu zen, zer helburu eta filosofia dituen, hiru begiradek zer-nolako garrantzia duten eta zer egin den kasu bakoitzean. Sareari buruzko informazio-triptikoak banatu dira eta webgunean eskuragarri dauden sarearen jarduerari buruzko bi txostenak irakurtzeko gonbita egin da.
2. Online ikastaro bat antolatu da: “Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jazotzen diren gorroto-delituei aurre egiteko errealitate, behaketa eta proposamenak begirada zabal batetik”. Ikastaroaren helburua da sexu- eta genero-aniztasuna defendatzeko sare bat osatzea, herritar kritikoak eta arrazoi horiengatik gorroto-delituen aurrean mobilizatuko direnak sortzeko. Ikastaroa 4 astekoa izan da (2017ko urriak 2-29).

GEHITU

1. LGTBI aniztasunaren polizia-kudeaketa: harremanak esparru nazionaleko hainbat erakunderekin (Fuenlabradako Polizia, Madrilgo Udaleko Aniztasuna Kudeatzeko Zerbitzua, Nafarroako Gobernua), arlo horretako jardunbide egokien informazioa eta erreferentziak biltzeko. Kudeaketa horiek egiteko, azken erakunde horretako (Nafarroako Gobernua) arduradun batek eginiko eskaera hartu zen oinarri.
2. 2016an Irunen gertatutako eta Eraberean Sareak tratatutako kasu bat, eta Gehitu elkarreak horren harira eginiko proposamenak abiapuntu hartuta, zenbait jarduera egin dira Irungo Udalaren ekimenez, aipatutako erakundearen laguntzarekin: sexu-

aniztasunari buruz sentsibilizatzeko hitzaldi bat (2017ko maiatzaren 17an) eta LGBTI Harrotasunaren Egunaren harira eginiko erakunde-adierazpena (2017ko ekainaren 28an argitaratu zen).

3. "Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik jazotzen diren gorroto-delituei aurre egiteko errealitate, behaketa eta proposamenak begirada zabal batetik" ikastaroan parte hartzea. Aldartek antolatutako online ikastaroa da (gorago aipatu dugu).

GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA

Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako prestakuntza-saio bat Eraberean Sarearen lanean zuzenean inplikaturik ez dauden Biltzen Integraziorako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuko profesionalekin. Saioa 2017-11-30ean egin da.

BILTZEN, INTEGRAZIORAKO ETA KULTUREN ARTEKO BIZIKIDETZARAKO EUSKAL ZERBITZUA

1. Ertzaintzako agente boluntarioei zuzendutako prestakuntza-programa bat, aniztasunaren eta tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako polizia-kudeaketari buruzkoa . 2017. eta 2018. urteetarako dago programatuta, eta 250 agenterik zuzenduta.

Programak hiru maila ditu (hasierakoa, aurreratua eta goi-maila), eta maila bakoitzean honako eduki hauek lantzen dira:

1. Aniztasunaren kudeaketa
2. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako jarrera, eta gorroto-delituak
3. Atzeritarrak, etorkinak, kulturartekotasuna
4. Ijito-herria

5. LGTBI: esparrua eta kontzeptuak

6. LGTBI: legedia.

Edukiak goizeko hiru saiotan banatu dira maila bakoitzerako, eta Eraberean Sareko erakundeetako profesionalak eta Biltzen zerbitzuko profesionalak aritu dira edukiok diseinatzen eta saioetan lantzen.

2017an, 150 agente inguruk jaso dute prestakuntza, hasierako mailan.

2. Biltzen zerbitzuaren prestakuntza-eskaintzaren barruan, dibertsitatearen polizia-kudeaketari buruzko modulu bat ematen da 2005etik, Poliziako eta Larrialdietako Euskal Akademiako promozioei zuzenduta (Arkauti). 2015etik aurrera, tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako arloaren eta gorroto-delituen tratamenduaren arloaren gai espezifikoak sartu dira aipatutako modulu horretan, eta Ertzaintzako promozio berri guztien curriculumean txertatu da, bai eta agente lehenaren postua lortzeko ikastaroetan ere.

2017. urtean honako modulu hauek eman dira.

- Dibertsitatearen Polizia Kudeaketa (udaltzainen promozio berriak): 34 udaltzainek hartu dute parte.
- Gorroto Delituen Tratamendua (agente lehenaren postua lortzeko ikastaroetako ikasleak): guztira Ertzaintzako 204 agentek eta 29 udaltzainek jaso dute prestakuntza.
- Diskriminazioa eta Gorroto Delituak (ertzainak eta udaltzainak): guztira 56 agentek jaso dute prestakuntza.

3. Jardunaldiak: Immigrazioa eta Integrazioa EAEn

Biltzenek eta Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) antolatutako jardunaldiak; 2017ko azaroaren 16an eta 17an, Bilbon.

“Populismoak eta Immigrazioaren Inguruko Jarrerak” izeneko jardunaldi hauetan landu dira, besteak beste, etorkin atzerritarrei eragiten dieten populismoak eta gorroto-diskurtsoak.

Jardunaldietan, Eraberean Sarea eta egiten duen lana aurkeztu dizkie bertaratuei Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak sarean duen kideak.



2

**ESPERIENTZIA POSITIBOAK,
TRATU-BERDINTASUNAREN
ETA DISKRIMINAZIORIK
EZAREN ARLOAN**

ESPERIENTZIA POSITIBOAK, TRATU- BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIORIK EZAREN ARLOAN

Jardunbide egokiak TBDEren arloan:

SEXUALITATEAREN KOLOREAK

“Sexualitatearen koloreak” Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) aniztasun sexualari buruz 2017an aurkeztutako gida bat da. Eragile ugariarentzat da gida (irakasleak, astialdiko hezitzaileak, familiak...), baina, batez ere, 8 eta 20 urte bitarteko adingabe eta gazteekin aisia eta astialdiko eremuetan lan egiten dutenentzat dago pentsatuta. Izan ere, hainbat baliabide eskaintzen ditu (bai teorikoak, bai metodologikoak), tresna egokiak eman nahi baitzaizkie gida erabiliko dutenei, ahalik eta egokien lagundu ahal izan dezaten ume eta gazteei eguneroko bizitzan sexualitatearen arloan sor lekizkiekeen gaietan. Gainera, kontuan izanda kontsulta egiten duenaren adinaren eta aurretiko ezagutzaren arabera egokitu beharko direla mezuak.

Horrexegatik, gida honek adibide praktikoak ditu, baina, egoera posibleak bildu beharrean, baliabideak eskaintzea izan da helburu nagusia. Beraz, kasu zehatzetarako irtenbide itxiak eman beharrean, sor litezkeen zalantzak bideratzeko erabil litekeen jarrerari buruzko orientabideak eman nahi izan dira. Horrela, helaraziko zaien zailtasun zehatza gidan jasota egon ez arren, gida lagungarri izango zaie lehenengo arreta emateko, bertan bereziki azpimarratzen baita nolako jarrera agertu behar den une horretan, eta argi azaltzen eta deskribatzen baita nolako diskurtsoak azaltzen diren lan egiteko orduan.

Gauzak horrela, lantze diskurtsoa da gidak gomendatzen duena, horrek sustatzen baitu dituen gaitasun eta beharrianen arabera har ditzala erabakiak erabiltzaileak. Beraz, ez da sustatzen debeku diskurtsoa (zer ez den egin behar nabarmentzen baitu, ikuspegi negatibotik), ez eta



permisibitate diskurtsoa ere (erabiltzailearen iritzia kontuan hartu gabe ezartzen baitu jarraitu beharreko bidea).

Era berean, larrialdietarako triptiko bat ere banatu da gidarekin batera, eta horren helburua da egin den galderaren erantzuna “nola” bideratu daitekeen bilatzen laguntzea, galderaren “zer” horri hainbesteko garrantzia eman gabe. Izan ere, batzuetan, hezitzaileak izan dezakeen presuntakuntzatik haratagokoa izan daiteke erabiltzaileak egindako galdera eta, egia esan, erantzun tekniko bat baino, bideratze ulerkorra da galdera egin duenak behar duena.

EGKren Berdintasun lan-arloak gidatu du gida, EGK barruan dagoen Gaur8 lantaldearen laguntzarekin eta Aldarte, Bizigay, Chrysallis Euskal Herria, Errespetuz, Gehitu eta EHUKo LGTB Liga elkarteekin lankidetzarekin. Partaidetza horri esker, glosario zabal bat sartu ahal izan da gidan, aniztasun sexualari buruz hitz egiteko erabiltzen diren zenbait termino azalduz, eta zein eremutatik datozen ezberdinduz: sexologiaren teoriatik edo aktibismotik eta Gizarte Zientzietatik. Izan ere, lanaren izenburuak berak dioen moduan, sexualitateari buruz hitz egiten dugunean dena ez da zuria ala beltza, baizik eta kolore ugariakoa.

Azkenik, esan nahi dugu gida Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen baten barruan egin zenez, PDF bertsioan banatzeaz gain (EGK osatzen duten entitate guztietan, interesgarri izan dakiekeen beste entitate batzuetan eta ikastetxeetan), 470 ale fisiko ere inprimatu ahal izan direla, eta 4. edizioa lortu dela..

Contacto:

- **Web de EGK:** <http://egk.eus/es/inicio/>
- **Correo electrónico del área de Igualdad:** berdintasuna@egk.org
- **Teléfono:** 944 43 61 43
- **Dirección:** c/Autonomía, 44 bajo. Bilbao (Bizkaia)

Loturak:

- **Noticia de su presentación:** <http://egk.eus/es/guia-colores-de-la-sexualidad/>
- **Noticias de su presentación en el Parlamento Vasco:** <http://egk.eus/es/colores-sexualidad-en-el-parlamento/> https://info7.naiz.eus/es/info_i7/20170920/sexualitatearen-koloreak-gida-aniztasuna-lantzeko-tresna
- **Guía:** <http://egk.eus/wp-content/uploads/2017/03/Los-Colores-de-la-Sexualidad.pdf>
- **Dossier facilitado a la prensa por parte de EGK:** <http://egk.eus/wp-content/uploads/2017/03/Dossier-de-prensa-Los-colores-de-la-sexualidad.pdf>

CEAR-Euskadik eta Arabako Foru Aldundiak ekimen bat sustatu dute kultura-jatorri ezberdinetako familien arteko topaketa bultzatzeko, diskriminaziozko zurrumurru eta aurreiritziak indarrrik gabe uzteko asmoz.

DISKRIMINAZIOAREN KONTRA, IZAN BIZILAGUNA

Hainbat modu daude diskriminazioaren kontra borrokatzeko. Eremu juridikotik, auzibidera eramandako diskriminazio-ekintzak zigortzeko epaiak lortzen dira. Legegintzaren eremutik, diskriminazio-mota zehatz batzuk hartzen dituzten zigorgabetasun-guneak kentzea helburu duten legeak onesten dira. Gizarte-elkarteen eremutik, salaketa-kanpainak antolatzen dira. Komunikabideen eremutik, albisteen tratamenduan tratu-berdintasunaren irizpidea defendatzen duten kode deontologikoak adosten dira.

Eta herritarren eremutik? Nola egiten diote aurre herritarrek birusen antzera sortu eta eguneroko bizitzako hainbat eremu kutsatzen amaitzen duen diskriminazioari?

2017. urtean, 44 kulturatako 1.035 pertsonak erantzun diote Araban galdera horri, herritarrok errealitatea aldatzeko daukagun indarra azpimarratzen duen ekintza baten bitartez. Ekintza batek mila hitzek baino gehiago balio badu, 1.035 pertsona horiek argi esan diote ezetz diskriminazioari, bene-benetako keinu baten bitartez. Izan ere, beste kultura-jatorri bateko familia bat gonbidatu dute haien etxeetan bazkaldu edo afaltzera, migratzaile eta errefuxiatuen inguruan dituzten aurreiritziei aurre egiteko. Keinu horren izena Bizilagunak izan da, eta da.

Bizilagunak

Bizilagunak ekimenean, urtean egun batean, oro har azaroan eta bazkalorduan, elkar ezagutzen ez duten familia bi (bata bertakoa eta bestea immigrantea edo errefuxiatua) familia horietako baten etxean biltzen dira elkarrekin bazkaltzeko. Bazkariotan, berriketan egiten da, platerak prestatzen dira, mahai-tresnak partekatzen dira eta bazkalondora arte egoten da hitz egiten. Horrela, azkenean, ohartu egiten gara jatorri ezberdinetako pertsonon artean badaudela batzen gaituzten gauza asko, bereizten gaituztenak baino gehiago.



Topaketa horiek egun berean egiten dira leku guztietan, herri eta hiri ugaritako hainbat etxetan, eta ez bakarrik Euskal Herrian, baita beste herrialde batzuetan ere. Hauxe da arrakastaren gakoa: keinu horrekin, herritarrak nahastea da ekimenaren helburua. Asmoa da pertsonen arteko harremanak sortzea kultura-jatorri ezberdinetako pertsonen artean, batera existitu arren normalean ez baitira bizikide izaten gune publikoetan, hau da, kafetegi, parke, jolastoki, atari eta antzekoetan. Jakina da pertsonen arteko ezagutza ezak aurreiritzi eta estereotipoak eragiten dituela, sarritan zurrumurru xenofoboaren ondorioz, eta aurreiritzi horiei aurre egiteko asmoz sustatu da ekimena. Halaber, jakina da aurreiritzi eta estereotipoak direla gertatzen diren diskriminazio-ekintza ugariren jatorria; horrexegatik, azken batean, diskriminazioari ezetz esateko keinu gisa ere sortu da Bizilagunak.

2017an, elkarren segidako laugarren urtez garatu da Bizilagunak programa Araban. Vitoria-Gasteizek eta Aiarako eskualdeak, Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillak, Gorbeialdeko kuadrillak, Arabako Lautadako kuadrillak eta Guardia-Arabako Errioxako eskualdeak hartu dute parte. Lurralde horretan, CEAR Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea Euskadin batzordeak eta Arabako Foru Aldundiak antolatu dituzte bazkariak, zurrumurruek aurkako estrategiak sustatzeko ekintza-lerroaren barruan.

Hala eta guztiz ere, arestian aipatu dugun bezala, Araban egindako 93 bazkarietaz gain, beste 24 egin dira Bizkaian (Bilbon, Basaurin, Barakaldon, Getxon eta Berriatuan), eta beste 122 Gipuzkoan, eskualde guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoan, guztira, 2.000 pertsona baino gehiagok esan diote argi eta garbi ezetz immigranteen eta errefuxiatuen diskriminazioari.



945 266 805
 bizilagunak.araba@gmail.com
 bizilagunak.araba
 @bizilagunAraba
 688 812 944 (solo Wasap bakarrik)

KOLORE BAT GEHITU ORTZADARRARI

“Kolore bat gehitu ortzadarrari” ekimena *Aniztasuna dugu aberastasun* proiektuaren barruan sortu da. Kultura-sentsibilizaziorako proiektu horrek Bizkaiko Foru Aldundia-ren diru-laguntza jasotzen du, eta duen helburua da gizarte inklusibo bat eraikitzen laguntzea, aniztasuna alderdi guztietatik eta maila guztietan uler dadin kohesiorako eta aberastasunerako elementu gisa.

“Kolore bat gehitu ortzadarrari” ekimena 2017. urtean garatu du Aldarte elkarteak, Bizkaian ijito herriaren eremuan lan egiten duten hainbat elkarterekin lankidetzan.

Ekimen horren barruan, ekintza ugari garatu dira elkargune eta elkarrizketa-guneak sortzen laguntzeko, kultura arteko errespetua bultzatzeko eta LGTBI kolektiboetako ijitoen errealitateari buruzko estereotipo eta aurreiritziak kentzen laguntzeko.

“Kolore bat gehitu ortzadarrari” ekimenaren abiaburua, hain zuzen ere, LGTBI kolektiboetako ijitoen errealitatea eta euren sexualitatea modu ireki eta askean bizitzeko dituzten zailtasunak izan dira. Horretarako, LGTBI kolektiboetako pertsonen arreta zuzena emateaz gain, oso garrantzitsua da ijito herriaren eremuan lan egiten duten elkarteek egiten duten sentsibilizazio-lana.

Testuinguru guztietan agertzen da sexu- eta genero-aniztasuna, baita ijitoen etniako kideen artean ere. Batzuetan, ijitoen gizarteak zailtasun edo mesfidantzak azaltzen ditu sexu- eta genero-aniztasuna euren komunitatean elementu positibo gisa onartzeko, eta halaxe ulertzen dute LGTBI kolektiboetako ijitoek. Izan ere, diotenez, sarritan

zailtasunak dituzte euren sexu-orientazioa edo genero-identitatea adierazi eta bizitze-ko euren komunitatearen barruan.

Hala ere, egia da LGTBI kolektiboetako ijitoen errealitatea askotan ikusezina dela, ez bakarrik ijitoen komunitatean bertan, baita LGTBI kolektiboen artean ere, orain arte ia ez baita gai hori landu.

Hori dela eta, “Kolore bat gehitu ortzadarrari” ekimenak, programa berri eta berritzailea izateaz gain, oso positiboa izan nahi du gai hori bi ikuspegietatik lantzeko, hau da, ijitoen ikuspegitik eta LGTBI ikuspegitik. Uste dugunez posible dela ijitoa izan eta sexualitatea eta genero-identitatea askatasunez bizitzea, beharrezko eta nahitaezkoa da ijitoen elkarteek eta LGTBI elkarteek elkarrekin lan egitea, zuzeneko sentsibilizazio-agente eta aldaketarako eta sexu- eta genero-aniztasunaren aurreiritzi eta estereotipoak gainditzeko agente diren aldetik. Horrenbestez, lankidetzaz horren helburua da LGTBI kolektiboetako ijitoek askatasunez bizi ahal izatea haien sexu- eta genero-orientazioa.

Ekimen horren barruan, 2017. urtean lan-tailer ugari egin dira Aldarte elkartearen eta Nevipen eta Kale Dor Kayiko elkarteetako lan-taldearen artean (guztiak daude Eraberean sarearen barruan). Esaterako, “Sexu- eta genero-aniztasuna, Giza Eskubideen gaia” izeneko tailerretan, sexu- eta genero-aniztasunari heldu zaio, eta egon daitezkeen aurreiritzi, estereotipo eta zailtasunak identifikatu dira, baita horiei ekiteko tresnak landu ere. Hori guztia, guztion partaidetza bultzatu eta guztion esperientziak konpartituz.

Ikuspegi bietatik ondorioztatu da lan hori oso positiboa izan dela. Aipatu denez, funtsezkoa izan da lanari elkarrekin heltzea, modu integralean aztertu ahal izan baita LGTBI kolektiboetako ijitoen errealitatea.

Proposamen honi buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, ipini harremanetan Aldarte elkartearekin (www.aldarte.org web-gunean aurkitu daiteke harremanetarako informazioa) edo ekimenean parte hartu duten ijitoen elkarteekin: *Nevipen* (helbide elektronikoa: nevipen@nevipen.org; telefono-zenbakia: 946526989) eta *Kalé Dor Kayikó* (helbide elektronikoa: eraberean@kaledorkayiko.org; telefono-zenbakia: 625095803).

ANIZTASUNAREN POLIZIA-KUDEAKETA

2017ko urrian, aniztasunaren polizia-kudeaketaren inguruko prestakuntza-programa bat abiatu zen, Ertzaintzako agenteei zuzenduta. Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren ekimena izan da programa hori, eta aurrera eraman ahal izan da Eusko Jaurlaritzako *Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren eta Ertzaintzaren Zuzendaritzaren* arteko elkarlanari esker.

Eusko Jaurlaritzak, zenbait estrategia eta arau-garapenen bitartez, behin baino gehiagotan adierazi du bermatu egin nahi duela pertsona guztien funtsezko eskubideak egiaz erabilgarri daudela, pertsona horien egoera edozein dela ere, eta diskriminazioaren aurka egin nahi duela, bidezko sinergiak suspertuz.

Beraz, intereseko ildo estrategiko gisa ulertuta, programaren abiapuntua izan da Eraberean sarearen antena batean jasotako kexa bat (*Eraberean, Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea*), baina kasu horri erantzun bat eman nahi izatetik haratago doa programa, asmoa baitu topaketa-guneak sortzea polizia-zerbitzuen eta immigrazioaren, ijito herriaren eta LGTBI kolektiboaren alorrean lan egiten duten zenbait gizarte-entitateren artean.

Horrela, azken horiek, sentsibilizazio- eta prestakuntza-lana eginez euren eskumenen eremuan, hobetzeko alderdiak sortzen lagun dezaten polizia-jarduneko prozeduretan. Horri esker, aniztasunaren kudeaketa egokia egin ahal izango da, dituzten ezaugarriak direla-eta bereziki kalteberak diren hiru kolektibo horietan.

2017ko azken hiruhilekoan hasi zen prestakuntza-programa, eta 2018. urtean zehar garatuko da. 9 saio ditu guztira, hiru prestakuntza-modulutan egituratuta: hasierakoa, aurreratua eta goi-mailakoa. Ikuspegi interaktibotik eta, batez ere, praktikotik antolatu da, eta aniztasunaren kudeaketaren, diskriminazioaren eta gorroto-delituen alorretako gai generikoei heltzen die modulu bakoitzak, baita eragina duten hiru kolektiboen berariazko alderdiei ere, hau da: migratzaileen, ijitoen eta LGTBI kolektiboko kideen berariazko alderdiei.

Amaitzeko, esan nahi dugu ekimen hau hasiera baino ez dela izango, etengabeko lankidetzalotura izan nahi duen zerbaiten hasiera. Gauzak horrela, 2018tik aurrera garatuko diren ekintza batzuk ere definitu dira dagoeneko. Horien artean, nabarmentzekoak dira sentsibilizazioarako material dibulгатzailea egitea eta transexualak identifikatzeko prozesuak hobetzeko alderdiak definituko dituen lantaldea eratzea. Hurrengo memorietan emango da horri buruzko informazio zehatza.

Uste dugu programa hau interes handikoa dela, eta ez bakarrik oinarri dituen sinergia eta lankidetzengatik, baita hau bezalako ekimenak gure errealitatea osatzen duen gizarte anitzaren eskaera direlako ere. Balioa da aniztasuna ulertzeko modu bakarra, baina, zoritxarrez, babesgabetasuna, gaitzespena eta diskriminazioa ekartzen ditu sarritan aniztasunak. Eta guztion lana da, herritarrona, gizarte-entitateena eta, nola ez, erakunde publikoena, eskubideak berdintasunez erabili ahal izango direla zaintzea. Maila horretan egindako ekarpena da ekimen hau.

3

**DISKRIMINAZIOAREN
EGOERA EUROPAN, ESTATU
ESPAINIARRREAN ETA
EUSKAL AUTONOMIA-
ERKIDEGOAN:
HURBILKETA**



DISKRIMINAZIOAREN EGOERA EUROPAN, ESTATU ESPAINIARREAN ETA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN: HURBILKETA

Carolin Emcke idazle alemaniarrek Contra el odio liburuan esan zuen gorrotoa lausoa dela beti; izan ere, zehaztasunak berekin dakar, nahitaez, zorroztasuna, bai eta arreta handiz begiratu eta entzutea ere. Banakoak talde itxuragabetu bihurtzen baditugu, erraza da emakumeei, fedegabeei, beltzei, lesbianeiei, errefuxiatuei, musulmanei edo ijitoei garrasi egitea eta haiek difamatzea.

Kapitulu honetan, Europar Batasunak eta estatuak diskriminazioari eta gorroto delituei buruz 2017. urtean egindako araudi-proposamen batzuk eta ebazpen judizial garrantzitsuenak errepasatuko ditugu. Horrez gain, gure ingurune hurbilean arlo horrekin lotuta izan diren hainbat gertakari ere bilduko ditugu.

3.1. Europar Batasuna

2017. urtean, Facebook, Twitter eta halako sare sozialetan gailentzen diren enpresek diskurtso arriskutsu mota horien zabalkundean duten erantzukizuna aztertu zen. 2016ko maiatzean, Facebook, Twitter, Youtube eta Microsoft enpresek hitzeman zuten gorrotoa sustatzen duten edukien zabalkundeari aurre egingo ziotela Europan, eta, horretarako, ereduazko kode bat sinatu zuten. Joan den urtarrilean, Europako Batzordeak ereduazko kode horren aplikazioa kontrolatzeko hirugarren azterketan bildutako emaitzak aurkeztu zituen; emaitza onak, gainera. Ebaluazioan parte hartu zuten GKE-ek eta organismo publikoek plataforma horiei gorrotoa sustatzen zuten legez kontrako diskurtsoak jakinarazi zizkieten, eta plataformek, batez beste, haien % 70 ezabatu zuten. Lehenengo ebaluazioan, 2016koan, tasa

hori % 28 izan zen. Azken jarraipen-txostenak beste ondorio garrantzitsu bat ere azaleratu zuen: informazioaren teknologien sektoreko enpresen % 81ek erabat betetzen du jakinarazpen gehienak 24 ordu igaro baino lehen aztertzeko ezarri zen helburua.

Mota horretako mezuek herritarrengan zer eragin duten neurtzeko, gutxiengoei eta diskriminazioari buruz Europar Batasunak egindako bigarren inkestaren emaitzen berri eman zuen Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak abenduan (EU-MIDIS II inkesta). Inkestatuei alderdi hauei buruzko galderak egin zitzaizkien: diskriminazio- eta jazarpen-esperientziak; profil etnikoaren arabera polizia-kontrolen kasuak; norberaren eskubideei buruzko ezagutza; gizarteratzearekin zerikusia zuten adierazleak (esaterako, pertenezia-sentimendua eta erakunde publikoenganako konfiantza), eta beste talde batzuekiko harmena. Europar Batasuneko 28 estatuetan egin zen inkesta; hain zuzen ere, 25.500 lagun elkarrizketatu ziren, etorkinak eta gutxiengo taldeetako kideak denak, erromaniak barne. Espainian, ijito-etniako herritarrak eta Afrika iparraldeko etorkinak elkarrizketatu ziren.

Emaitzen arabera, Europar Batasuneko egoera 2008ko EU-MIDIS inkestak erakutsi zuenaren antzekoa da. Lege-arloan aldaketak izan diren arren, ez da aurrerapen nabarmenik egon. Inkesta erantzun zutenen % 38k diskriminazioa jasan zuen azken bost urteetan; batez ere, iparrafrikarrek (% 45), erromaniek (% 41) eta Saharaz hegoaldeko afrikarrek (% 39). Diskriminazio etnikoko kasuen % 88 ez zen salatu, ezta gorrotoak eragindako jazarpen-kasuen % 90 eta gorrotoak eragindako indarkeria-kasuen % 72 ere.

EU-MIDIS II inkestaren arabera, erromanien % 80 bere herrialdean indarrean den pobrezia-arriskuko atalasearen azpitik bizi da oraindik; komunitate horretako hiru kideetik batek ez du urik etxean; hamarretik bat elektrizitatearik gabeko etxe batean bizi da, eta lau erromanitik batek (% 27) eta etnia horretako hiru haurretik batek (% 30) gutxienez behin gosea pasatu zuten etxean, inkesta egin zen hilabetearen aurrekoan. Horrek esan nahi du oraindik asko falta dela Kontseiluaren 2013ko Gomendioaren helburua betetzeko; gomendio hori gizarte-inbertsioaren bidez pobrezia gutxitzeari eta herritar erromaniak gizarteratzeko neurri eraginkorrak aplikatzeari buruzkoa da.

2008ko uztailaren 2an, Batzordeak "Diskriminazio anizkoitzari aurre egiteko Zuzentaraua" izeneko proposamena taxutu zuen, zeinaren bidez pertsonen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzen baita, aintzat hartu gabe haien erlijioa, sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa. Hamar urte beranduago, zuzentaraua onartzeke dago. Iazko ekainaren 29an, urte hauetan izandako ekarpen eta aldaketa guztiak biltzen dituen testu kontsolidatua aurkeztu zen, eta, azaroaren 27an, diskriminazio anizkoitzaren definizioa mamitu zen. Zuzentaraua onartzen bada, espresuki debekatuta geratuko da arlo jakin batzuetan diskriminatzea; hala nola gizarte-babesaren arloan (gizarte-segurantza eta osasun-arreta barne), hezkuntzaren arloan, eta ondasunetarako eta zerbitzuetarako irispidearen arloan (etxebizitza barne).

Aurtengo martxoaren 1ean, Justiziaren, Kontsumitzaileen eta Genero Berdintasunaren aldeko komisario Věra Jourová 2017ko urteko txostena aurkeztu zuen, "Lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen berdintasunean aurrera egiteko ekintzen zerrenda"ri buruzkoa. Nahiz eta Europar Batasuneko herritarren % 71k uste duen LGBTI pertsonen heterosexualek eskubide berberak izan

beharko lituzketela, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak egindako azterlan baten arabera, LGBTI pertsonen % 47k diskriminazioa edo jazarpena jasan zuen 2016an.

Jarraian, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) eman dituzten epai interesgarri batzuk aipatuko ditugu. Alde batetik, GEEAk 2017ko martxoaren 28an emandako epaia (Škorjanec Kroaziaren aurka) aipatuko dugu, zeinaren bidez GEEAk aztertu baitzuen estatuek zer betebeharrak duten elkartzea dela-eta gertatzen diren indarkeria arrazistako ekintzak ikertzeko. 2013ko ekainaren 9an, polizia larrialdi-dei bat jaso zuen, eta jakin zuen bi gizonen "erromani jatorriko bikote bati" eraso egin ziotela. Erasoak iraun zuen bitartean, irain egin zieten, etnia aitzakiatzat hartuta. Demandatzailearen bikotekidea erromani jatorrikoa zen, eta Fiskaltzak ez zuen ezbaian jarri demandatzailea zauritu egin zela erasoaren ondorioz, baina erabaki zuen ez zegoela nahikoa frogarik egiaztatzeko eraso arrazista baten biktima izan zela, bera ez zelako erromani jatorrikoa. GEEaren ustez, Fiskaltzak, kasua ikertzean eta aztertzean, demandatzailearen bikotekideak jasandako eraso bortitzarekin lotuta zeuden gorroto-krimenaren elementuetan bakarrik jarri zuen arreta. Agintariak ez ziren gai izan harremana ezartzeko erasoaren arrazoi arrazistaren eta demandatzaileak bere bikotekidearekin zuen elkartzearen artean, eta, horrek, GEEaren ustez, kasuaren inguruabarrak behar bezala ez aztertzea eragin zuen; hau da, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. eta 14. artikuluko urratu ziren, delituak ikertzeko eta diskriminazioa debekatzeko betebeharrari buruzkoak.

Beste alde batetik, EBJAk bi epai garrantzitsu eman zituen 2017ko martxoaren 14an, lanlekuan buruzapia erabiltzeari buruz (auzigaiak: G4S Secure Solutions—C-157/15— eta Bougnaoui—C-188/15—). G4S Secure Solutions auzigaiari dagokionez, Achbita andreak bere enplegatzaileari jakinarazi zion lanorduetan buruzapi islamikoa (hijaba) jantzita eramateko asmoa zuela. Enpresa horretan araudi bat zegoen, langileei debekatzen ziena beren sinesmen politikoak, filosofikoak edo erlijiosoak erakusten zituzten ikurrak bistan eramatea edo sinesmen horien ondorioz lanlekuan errituak betetzea. Barne-arau hori G4Sko gainerako langileei aplikatzen zitzaien modu berean aplikatu zitzaion Achbita andreari. Ondorioz, barne-arau horrek ez du zuzenean erlijioan edo sinesmenetan oinarritutako tratu-desberdintasunik ezartzen eta ez da Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentarauaren 2. artikuluko 2. apartatuko a) letraren aurkakoa (zuzentarau hori enpleguaren eta okupazioaren arloetan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa da).

Bougnaoui eta ADDH auzigaia, aldiz, honela interpretatu zuen EBJAk: bezero batek enpresaburu bati eskatzen badio haren zerbitzuak buruzapi islamikoa duen inork ez eskaintzeko eta enpresaburuak jaramon egiteko asmoa agertzen badu, hori, 2000/78 Zuzentarauaren arabera, debekatuta dagoen tratu-desberdintasuna da. Aurreko kasuan ez bezala, enpresa horrek ez zuen araudirik elementu erlijiosoaren erabilera debekatzeko. Beraz, enplegatuek hijaba ez eramatea nagusiaren nahia baino ez zen, eta horrek ez du justifikatzen enpresako gainerako langileekiko tratu-desberdintasuna.

3.2. Diskriminazioari eta gorroto delituei buruzko datuak

Oraindik ez dakigu zein diren Estatu espainiarreko datuak gorroto delituekin lotutako gertakariei buruz. Kapitulu hau idazteko garaian, eskura dugun informazio-iturri bakarra EUSKADIKO GORROTO GERTAKARIEI BURUZKO 2017KO TXOSTENA da, Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak idatzia. Txosten horretan, bereizita agertzen dira delitu izan daitezkeen gertakariak eta administrazio-zehapen direnak. Halaber, kolektibo babestuak definitzen dira, eta ondorioak eta proposamenak aurkezten.

2017. urtean, 143 gorroto-gertakari erregistratu ziren Euskadin; haietatik, 129 delituak ziren, eta 14, berriz, administrazio-zehapenak. Erregistratutako 129 delituetatik, % 55ek izaera arrazista edo xenofobia zuen, eta % 25a, berriz, sexu-orientazioarekin eta -identitatearekin lotua zegoen; zifra horiek 2016koen ia-ia berdinak dira.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	± 2016
APOROFOBIA		1		1	-1
GAIXOTASUNA/ DESGAITASUNA / BESTELAKOTASUN FUNTZIONALA	1	1		2	-1
IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA	2	8	6	16	-1
SEXU-ORIENTAZIOA ETA -IDENTITATEA	1	27	4	32	1
ARRAZAKERIA/XENOFOBIA	6	47	18	71	3
ERLIJIOA ETA SINESMENAK		4	3	7	4
GUZTIRA	10	88	31	129	5

3.3. 2017. urtean gertatutakoaren laburpena

LGTBI

2017an ugaritu egin ziren sexu-orientazioaren ondoriozko jazarpenagatik aurkeztutako asilo-eskaerak. Eskatzaile gehienak Gambiakoak, Kamerungoak, Marokokoak, Aljeriakoak, Venezuelakoak eta Erdialdeko Amerikakoak izan ziren. Legeak ez du galdatzen sexu-orientazioa egiaztatzeko, baina eskatzen du beldur funtsatua dagoela egiaztatzen duten zantzuak emateko eta kontakizun koherentea egiteko; alabaina, halakoak frogatzea zaila izan ohi da.

2017an, polemika handia sortu zuen “Hazte oír” plataformaren autobusak; izan ere, Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat hiritan egon zen, eta mezu transfoboa erakutsi zuen. Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak autobusaren aurka zeudela adierazi zuten; are gehiago, Donostiako Udalak autobusa hirian egoteari non grata izendapena eman zion. Gai horrekin loturik, Madrilgo lehen auzialdiko 42. epaitegiak ibilgailua ibilgetzeko agindua eman zuen 2017ko martxoaren 2an. Nolanahi ere, Madrilgo Probintzia Auzitegiak kautela-neurri hori kentzeko agindu zuen gero, bere ustez mezu hori zabaltzea ez baitzen delitu.

Etiketetik hurbilago, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017ko azaroaren 3an salatu zuen L.S.B., ANA. iEl lesbicomic! komikiaren sustatzaileak eraso homofoboak jasan zituela sare sozialetan, komikia argitaratzeko dirua biltzen saiatu zenean (asmoa da komikia doan banatuko da).

Eusko Jaurlaritzak “Lesbofobia, homofobia eta transfobia hezkuntza-sisteman” izeneko txostena aurkeztu zuen maiatzean, non neurtzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako gazteen sentsibilizazio-maila. Txostenaren arabera, gazteek neurri batean barneratuta daukate aniztasuna, baina oraindik ikuspegi estereotipatua dute LGTBI kolektiboari buruz; batez ere, telebista-programek bultzatuta.

Alderdi positibo gisa, aipatu beharra dago Alemaniak LGTBI kolektiboaren eskubideak onartzeko aurrerapauso kualitatiboak eman zituela 2017. urtean; izan ere, homosexualen arteko ezkontzak legeztatu zituen (neurri hori hartu duen 24. herrialdea da), eta onartu zuen genero intersexualeko/ anizkoitzeko edo soilik anizkoitzeko pertsonak inskribatzea erregistro zibilean, 2018. urte amaieratik aurrera.

Araugintzaren eremuari erreparatzen badiogu, Diputatuen Kongresuan aurkeztutako lege-proposamen bat azpimarratuko dugu; hain zuzen ere, “Sexu-orientazioagatiko, genero-identitate edo -adierazpenagatiko eta ezaugarri sexualengatiko diskriminazioaren aurkako eta lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen gizarte-berdintasunaren aldeko lege-proposamena”, zeina oraindik izapidetzen ari baita (une honetan, alderdi politikoak zuzenketak aurkeztzen ari dira). Orobat, 2017an beste bi lege hauek ere onartu ziren: 8/2017 Legea, abenduaren 28koa, LGTBI pertsonen eta beren senideen eskubideak, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzekoa Andaluzian; eta 8/2017 Lege Integrala, apirilaren 7koa, Valentziako Erkidegoan genero-identitaterako eta -adierazpenerako eskubidea onartzekoa.

ARRAZAKERIA

Ikuspegiren 2017ko Barometroaren arabera, tolerantzia-tasa % 58,4 da; hots, aurreko bi urteetako baino handiagoa. Dena den, Barometroak agerian utzi du Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak anibalenteak direla atzerriko immigrazioarekiko, oraindik ez baitira desagertu halako etorkinen gaineko zenbait estereotipo: “diru-sarrerak bermatzeko errentaz aprobeztatzen dira, monopolizatzen

heltzeraino”, “gizarte-laguntzei esker bizi dira”, edo “haiek hemen egoteak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen ditu”. Beste estereotipo batzuk, aldiz, apaldu egin dira; hala nola mezu hauek atzean dituztenak: “ez dute bertakotu nahi”, “haiek hemen egoteak hezkuntza-maila jaisten du” edo “lana kentzen digute”. Ikuspegik, orobat, jatorri atzerritarra duten 0-24 urte bitarteko herritarrei buruzko txosten bat aurkeztu zuen. Txosten horretan azaltzen da pertsona eta familia horiek jatorri euskalduna edo espainiarra dutenek baino hezkuntza-maila, laneratze-tasa eta baldintza sozioekonomiko kaxkarragoak dituztela. Horren arrazoia, ziurrenik, diskriminazio bikoitza da: diskriminazio soziolaborala eta etnikoa.

IJITO-HERRIA

Donostiako Udalak, 2017ko martxoaren 30eko Osoko Bilkuran, adierazpen instituzional bat onartu zuen aho batez, baztertu zuena jatorri etniko desberdineko pertsonen artean etsaitasuna edo banaketa bultzatzen duten jarrerak erakustea edo argitaratzea. Gainera, adierazpen horretan honako konpromiso hauek hartu zituen Udalak: ez du egingo aliantza politikorik arrazagatiko gorrotoa sortzeko asmoa duten alderdi politikoeekin, eta borroka egingo du ijito-herriak demokraziaren maila guztietan bidezko ordezkaritza izateko.

AGIFUGIko Emakumeen Atalaren arduradunak 2017ko martxoaren 5eko elkarrizketa batean esan zuenez, emakumezko ijitoek diskriminazio hirukoitza jasaten dute: emakume izateagatik, gutxiengo bateko kide izateagatik, eta oinarrizko hezkuntza ez izateagatik. Elkarrekin lan handia egiten duten arren, estigma eta aurreiritzi askok bizirik jarraitzen dute gaur egun, eta, ondorioz, pertsona horiei ahalegin handiagoak eskatzen zaizkie, eta estereotipoetatik aldentzen direla frogatu beharra izaten dute.

Politikaren arloan, Ijito Herriaren Eguna eta ijitoen sinboloak aitortzeari buruzko legez besteko proposamena aurkeztu zen Kongresuan 2017ko martxoaren 9an, eta aho batez onartu zen; sinbolo dira ijitoen bandera (berde-urdina, 16 erradioko gorpil gorri bat duena) eta ijito-herriaren Gelem Gelem ereserkia. Hilabete geroago, ijitoen benetako gizarteratzeari eta haien aurkako diskriminazioaren kontra borrokatzeari buruzko legez besteko proposamena onartu zen. Gainera, 2017ko ekainaren 1ean, ijito-herria aitortzeari buruzko legez besteko proposamena onartu zen.

2017ko irailaren 4an, janari lasterreko jatetxe-kate handi bateko enplegatu batek Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu bateko aldageletan agertu zen oharra argitaratu zuen sare sozialetan. Oharrean, langileek bete beharreko jarraibide batzuk jasotzen ziren, eta goiburuan hau zioen: “ez zaie ijitoei eta errumaniarrei zerbitzatuko”. Horrek sarrera ukatzeko eskubidearen arloko legeria urratzen du. Ondorioz, establezimenduko arduradunari kargu hartu zitzaion. Izan ere, bere kabuz jokatu zuen; hau da, ez frankiziadunak ez frankiziatzaileak ez zekiten ezer oharrari buruz eta, beraz, ez zuten ontzat eman. Gertakari horri erantzuteko, Europako Errumaniarren Elkarrekin Federazioak (FADERE) salaketa jarri zuen multinazionalaren aurka, eta alegatu zuen gorroto delitua gertatu zela.

Beste kontu batzuetara etorrira, urtebetez Gasteizko Abetxuku auzoko hainbat bizilagunen jazarpena jasan ondoren, 2017ko urrian, epaitegi batek agindu zuen Manzanares Cortés familiak auzo horretako etxebizitzatik alde egin behar zuela, errentamendu-kontratua deuseza deklaratu zelako. Abenduan, Alokabide sozietate publikoak etxebizitza bat esleitu zion familia horri Aztegietan. Herriko bizilagunak, ordea, hasiera-hasieratik saiatu ziren familiak etxebizitza okupa ez zezan; are gehiago, etxebizitzan sartu ziren, eta altzariak apurtu. Manzanares familia aldi baterako harrera-zentro batean geratu zen, eta, orain, Sansomendiko pisu batean dago zain; izan ere, esleitu zieten etxebizitza oraindik ezin izan da konpondu.

Aztegietako bizilagunek familia horren aurka egin dituzten manifestazioek eta haiekin izan dituzten liskarrek agerian uzten dute kapitulu honen hasieran aipatu dugun idazle alemaniarrek azaldutako gorrotoaren irudia. Liburuaren lehenengo kapituluetakoa batean, Carolin Emcke Saxoniako harrera-zentro batera errefuxiatuak zekartzan autobus batek jasandako erasoaren bideoaz mintzo da. Manifestariek hitz hauekin hartu zituzten errefuxiatuak: “Gu gara herria”. Idazleak zera galdetzen dio bere buruari: “Zer da ikusten dutena? Zer ikusten desberdin, nik ikusten dudanaren aldean?”.



4

**ERABEREAN SAREAK
ARTATUTAKO
PERTSONEI EGINDAKO
ELKARRIZKETAK**

ERABEREAN SAREAK ARTATUTAKO PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETAK

4.1. Emakume ijito bat: jazarpen diskriminatzailea zentro komertzial batean

Intentsitate gutxiko gorabeheren bidez agertzen dira ijitoek jasotzen dituzten tratu diskriminatzaileak. Kasu horiek bakarka aztertuz gero, birudi ez direla oso garrantzitsuak, baina berebiziko arreta merezi dute, ordea, behin eta berriz gertatzen direlako. Arrazoi desberdinak direla medio, pertsona batzuk zelatari aritzen dira eta beste batzuk zelatatuak izaten dira, eta egoera horiek naturalizat jotzen dira, erabat desagokiak eta onartezinak diren arren.

Zer gertatu zen iaz? Nola gogoratzen duzu?

Iaz eta aurrean: beti gertatzen da berdin. Emakume ijito pare bat elkarrekin ikusten dutenean, lapurtzera goazela pentsatzen dute, beti sufritzen dugu tratu txar hori. Zentro komertzialetara joaten garenean, berdin da nola gauden jantzita edo oso ondo ikasiak garen. Oso txarto pasatzen dut, oso urduri jartzen naiz, batez ere emakume-talde handi batekin banoa, edo merienda hartzeko edo afaltzeko geratu bagara. Hori bai, hau ere esaten dizut: segurtasun-guarda oso gertu ez daukagunean edo heltzen da une bat non ia ez zaren gogoratzen “gizon hori” daukazula atzean.

Nola ezagutu zenuen Eraberean? Zergatik jo zenuen Sarera?

AGIFUGI elkarteko Emakume Ijitoaren Arloan parte hartzen dut, auto-estimua lantzeko taldeetan, eta, egun batean, berriketan ari ginela, hezitzaile dinamizatzaileak komentatu zigun mota horretako egoerak salatu ditzakegula modu anonimoan, guretzat ere garrantzitsua dela aukera izatea gure benetako bizipenak azaltzeko. Eta halaxe egin nuen.

Nola hartu zintuzten? Nola gogoratzen duzu une hori?

Oso ondo: konfiantza handia eman zidaten. Hasieran ez nuen ulertzen zer zen sarearena, baina, azkenean, pertsona erreferentzialak oso ondo azaldu zigun dena.

Zer espero zenuen Sarera jo zenuenean? Lortu zenuen espero zenuena?

Ez nekien oso ondo zer izango ote zen hori guztia. Baina niretzat nahikoa izan zen. Azken finean, gutxi egin ahal izaten da beti...Esan nahi dut komertzio handietan berdin jokatzeko jarraitzen dutela: gure atzean etortzen dira, eta gaizki begiratzen gaituzte, eta hori ezin izango da inoiz aldatu.

Zertan oinarritu da Sarearen jarduera?

Artatu gintuzten, entzun ziguten, eta heziketa-jarraibideak eman zizkiguten hurrengoan nola jokatu jakiteko.

Zertan da gaur egun zure kasua?

Ez gara bueltatu zentro komertzial horretara, eta ez zaigu ezer gehiago gertatu.

Zer izan da Eraberean zuretzat?

Laguntza izan da guretzat, emakume ijitoontzat.

Faltan egin duzu zerbait? Gustatuko litzaizuke beste era batez egitea zerbait?

Gustatuko litzaizuke, bada, ekintzetara pasatzea. Esan nahi dut gaizki tratatzen zaituztenean eta gaizki sentitzen zarenean, sententzio horiek ez zaizkizula kentzen, aitzitik...Eta, tira, zapuztuta geratzen zara...

Zerbait gehiago esan nahi duzu?

Gizarteari esan nahi nioke gu bakean bizitzen uzteko: guretzat, ijitoontzat, oso konplikatu dela etengabe demostratu behar izatea pertsona onduak gurea, langileak; eta badakigula badaudela beste ijito-mota batzuk, baina denok ez gurea berdina, ez gurea lapurrak, ezta zikinak ere. Eta aukera bat emateko, eta albo batera uzteko aurreiritziak, ez baikara hain desberdinak batzuk eta besteak. Gu ere – emakume ijitoak – humanoak gara eta.

Elkarrizketaren egilea: Isa Jiménez (AGIFUGI)

4.2. Etxebizitza alokatzean diskriminazioa jasan duen biktima bat

Sarai Rojas, iruzurra egin zioten alokairuko etxebizitza baten bila ari zela:

«Inoiz ez nuen usteko hemen diskriminatuko nindutenik»

Hilabeteetan saiatu zen Sarai Rojas alokairuko etxebizitza bilatzen, berarentzat, bikotekidearentzat eta alabarentzat. Emakume errefuxiatua zen, eta Euskadira heldu zenean bazuen itxaropena, asilo-eskaerak bakean bizitzeko ateak zabalduko zizkiola. Baina kontrako erantzuna jaso zuen; ateak itxita. Hain zuzen ere, alokairuko etxebizitzaren ateak topatu zituen “itxita”, sartu nahi baina ezin, atzerritarra zelako.

Inoiz ez zuen imajinatu etxebizitza baten bila ibiltzea hain zaila izango zenik. Deiak egin zituen eta 65-70 etxebizitza inguru bisitatu. Zenbatzeari utzi dio jada. Azkenik, alokairuak kudeatzeko webgune ezagun baten bidez, etxebizitza baten jabearen bitartekari batekin jarri zen harremanetan, etxebizitza alokatzeko prest baitzegoen. 900 euro eskatu zion erreserba moduan. Halaber, etxera joan baino lehen, etxebizitza garbitzeko eta gustura margotzeko aukera eskaini zion. Saraik eta familiak ez zuten duda izpirik izan. “Erreserba” ordaindu, eta, zazpi egunez, etxea mimo handiz atondu zuten. Neskatxoarekin batera aukeratu zituzten gela bakoitzeko koloreak. Amaitu eta alokairu-kontratua sinatzeko prest zeudenean, iruzur bat zela konturatu ziren. Engainu bat izan zela. Bitartekaria iruzurti bat zen. Gaur egun, Sarai, bere onetik aterata, gogoan dauka kontua eta Eraberean sareak egindako bi galderei erantzun die.

Zelan sentitzen zara Gasteizen etxebizitza bilatzeko prozesua bertatik bertara bizi ondoren?

Lur jota sentitzen naiz. Indarge eta minduta sentitzen naiz, baztertu nautela ikusi dudalako. Alokairu-etxebizitzak eskaintzen zituzten iragarkietako telefonoetara deitzen nuenean, jakin banekien jabeek nire azentua igartzen zutela eta arbuio-horma bat altxatzen zutela, murru gaindiezin bat. Jende ona garela konbentzitu ahalko banitu! Gure herrialdean badugu esaera zahar bat: “Ezin duzu jende guztia kartoizko aizto berberarekin ebaki”. Baina hori da nirekin egiten ari direna.

Iruzurra egin dizute eta salaketa aurkeztu duzu. Zein izango da hurrengo urratsa?

Ez dakit. Espero dut iruzurgilea zigorrik gabe ez geratzea. Harrigarria bada ere, salaketa jarri eta hurrengo egunean, iruzurgileak iragarki bera zeukan eskegita webgune berean; egin-eginean ere, jakin dut niri iruzurra egin eta hurrengo egunean beste familia bati egin ziola iruzurra. Nik uste nuen horrelako gauzak ez zirela hemen gertatzen. Nire herrialdean, Venezuelan, iruzurrak eta maulak egunoroko gauzak dira. Baina ez nuen uste hemen ere gertatzen zenik. Orain badakit arriskuak daudena hortik zehar; beraz, tentu handiagoz bilatzen dut etxebizitza. Ez dakit jasotzen ari naizen laguntza juridikoak bideratuko duen dirua berreskuratzea. Espero dut gutxienez balio izatea egoera ahulagoan gauden pertsonok pairatzen dugun arrazakeriari eta bazterkeriari aurre egiteko.

CEAR Euskadi Eraberean sarearen antena-erakundea da, eta Sarai Montes en kasuaren defentsa hartu du bere gain. Aurreko martxoaren 21ean, Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, plazaratu du "Etxebizitza alokagai, immigranterik ez" esaldi hori maiz entzun behar izaten dutela Euskadin etxebizitza bila dabilten etorkinek eta errefuxiatuek. Pertsonak asiloa eskatzen dutenean, ibilbideak 6 hilabetetik 9ra arteko epea ezartzen du, zeinean errefuxiatuak harrera-etxebizitzetan bizi baitira, iritsiz gero lehen hilabeteetan oinarritzko beharrianak betetze aldera. "Arazoa behin epe hori amaituta hasten da", Rosabel Argote CEAR-Euskadiko Kulturen arteko Elkarbizitzaren arduradunak dioenez, eta erantsi du: "epe hori igarota, euren kaxa alokatu behar dute etxebizitza, gizarteratze-prozesua aurrera eramateko. Horri enpleguaren bila ibiltzea, hizkuntza ikastea, lagunak topatzea eta abar gehitzen zaio. Finean, epe horretan gizarte-sarea josten hasten dira Euskadiko ohiko egoiliar gisa."

Eskubide hori egikaritu ahal izateko pairatzen duten diskriminazioa hiru mailetan gertatzen da:

- **Atzeritarrik ez:** Higiezin agentzi batzuek argudiatzen dute jabeek ez dietela alokatu nahi atzeritarrei. Arazorik larrienak dituztenak Magrebko eta Saharaz hegoaldeko jatorria dutenak dira.
- **Betekizun ekonomikoak:** Alokairuen prezioa ari da igotzen orokorrean, baina batez ere hiri turistikoetan, Donostian esaterako. Opor-aloairuaren ondorioz, alokairuko etxebizitzaren eskaintza gogorki ari da murrizten. Hortaz, eskaera oso handia denez eta eskaintza oso txikia, higiezin agentziek eta jabeek inolako negoziatorik gabe aukera dezakete nori alokatu, eta asiloa eskatzen dutenetako askok ezin dituzte betekizunak bete.
- **Abusuak edo maulak:** Kasu batzuetan, bitartekari legez aurkeztu diren batzuek aurrerakin bat kobratzen dute etxebizitza bat lortuko dutela hitzemandako, eta gero alde egiten dute diruarekin. Beste batzuetan, logelaren prezioa igo dute errolatzearen truk.

2017an, eta 2018an igaro den denboran, erakundeak eta gizarte zibila mobilizatu da maiz Euskadi errefuxiatuentzako harrera-herrialdea izan dadin. Baina elkartasun hori ezin da amaitu leku seguru batera heltzea lortu dutenean, harrera ematea ez da aterpea ematea soilik. Giza eskubideak bertan daudenean ere bermatu behar dira, besteak beste, etxebizitza duina izateko eskubidea.

Elkarrizketaren egilea: Rosabel Argote (CEAR Euskadi)

4.3. LGTBifobiak eragindako eraso baten biktima bat

Elkarriketa hau Eraberean sarean LGTBifobiagatik artatutako kasu bati dagokio; erasoagatik irekitako judizio-prozedura saretik bertatik izapidetu zen.

Nola ezagutu zenuen Eraberean sarea?

LGTB taldeetako militante izaki ezagutu nuen. Talde horien artean Aldarte zegoen. Erasoarena gertatu zitzaidanean, mugimenduko pertsona jakin batzuekin hitz egin nuen, eta Aldartera jo nuen. Aldarteko abokatuak sareari buruz hitz egin zidan. Hasieran, sarera jo baino lehen, nire kabuz jarri nuen salaketa, baina gero konturatu nintzen laguntza behar nuela, prozesu osotik pasatzean oztopoak nituelako eta ez nuelako ikusten nire burua behar bezain indartsu, nik bakarrik aurre egiteko. Emozionalki ni bakarrik ez nintzen gai denari aurre egiteko.

Biktimek balorazio positiboa egiten dute Eraberean sareak ematen dien laguntza eta babesari buruz...

Laguntzen dizun pertsonak arazoak dakienez, errazago egiten dio aurre egoerari, eta gainera, zure eskubideak ezagutzen ditu, gauza guztietan dagoen homofobia instituzionala dagoelako.

Konpainiak laguntza eskerga eman zidan, ze mugimenduko militantea luzaroan izan naizen arren, eraso jasan dut, eta horrek eragin emozionala dauka. Sarean pertsonak hurbilak dira, gaiak badakite, adituak dira, hortxe daude behar duzunerako, entzun egiten dizute eta gainera, saretik egiten dute aurre zure ahotsa plazaratuz. Niretzat konpainia hori oso ona da, pentsatzen dudana, salatzen saiatzen ari naizena, baliozkotzen duelako, segurtasuna ematen dit. Sentitzen nuen sarera jotzean ez zidatela esango "zertaz ari zara?": begirada hurbila dute, enpatia sortzen duena.

Konpainia hori funtsezkotzat jotzen da oso judizio-prozedura luzeak direnean eta denboran geroratzen direnean, kasu honetan gertatzen den moduan, zeinetan prozedura bi urtez luzatu baitzen, eta hori higadura handia da biktimarentzat. Nola bizi izan duzu judizio-prozedura guztia?

Bai, bi urtez luzatu zen. Lehen urtea gogorra da, erasoaren arestikoa delako. Deitzen dizuten bakoitzean, gutun bat jasotzen duzunean... berpiztu egiten zaizu, nolabait, gertatu zaizun hori. Harremanetan egon nintzen, bai, judizio-erakundearekin, baina prozedura osoan sarearen konpainia eduki nuen, eta ez nuen bizi denbora guztian hortxe, erne eta tinko, egon behar nintzela bezala. Bai, hitz egitera joan nahi nuen, bertaratzin nintzen eta entzuten zidaten, baina sarea nirekin zegoen eta horrek askatasuna ematen dizu zure prozesu pertsonala egiteko, gertatu zaizuna onartzeko. Babes hori neukan, eta horrek

lagundu egiten dizu autoestimu ona izaten, bizitakoa adierazteko, eta prozesuan justizia bilatzen duzu bertan agian ez duzu justizia hori lortuko, baina sentitzen duzu lagunduta joan zaitezkeela.

Harrezkero, bitartekaritza-gutun bat jaso nuenean epaiketa amaitu eta epai irmoa eman ostean, harritu egin nintzen, eta sareari adierazi nion txarto sentitzen nintzela, uste nuelako gutun hori erasotzailea hobeto senti zedin baino ez zela, gutun osoan ez zirelako inon aipatzen ez biktimia, ez biktimaren sentimenduak edo erreparazioa. Azkenean, sareko abokatuarekin joan nintzen, bai. Ondo azaldu ziguten kontua zelakoa zen, gutunean baino askoz hobeto, eta funtzionatzen du, beste alderdia konturatzen delako esertzea dela bidea. Halaber, haxe ere errespetatzen zen: “ni ez naiz erasotzailearen ondo-ondoan eseriko”.

Bete al dira biktimia bezala zenituen igurikimenak edo esperantzak prozesu guztian zehar, salaketatik hasita; sarearekiko harremana, azken unera arte? Merezki izan du?

Pertsonalki, prozesua oso gogorra iruditzen zait. Merezki izan al du? Bai. Merezki du konpainia badaukazu, eskubidea daukazulako entzuna izateko: uste baduzu egin behar duzula, oso ondo dator sareko konpainia hori. Nire kasuan dena atera zen ederto, ahal zen neurrian, ze eraso inork ez dizu kentzen, baina ikusi nuen nire bertsioa entzun egin zutela, eta epaiketan, beste pertsonak onartu zuen, asko kostata, eraso homofobikoa izan zela: oso garrantzitsua izan zen. Prozesu luzea da, baina laguntza baduzu, askoz hobea da, ze bakarrik bazoaz udaltzaingoan salaketa jartzeko gogoia joan egiten zaizu.

Sarea gizartearentzat baliabide ona delakoari buruz, honako hau adierazi du:

Nire ustez garrantzitsua da sarea ezagunagoa izatea, ikastetxeetara, institutueta eta unibertsitateetara joan behar da, eta bertan jakinarazi behar da laguntza-mota hori egon badagoela, sareak zerbitzu bat ematen duelako, baina jendeak jakin behar du zein zerbitzu-mota den, zein laguntza-mota ematen den, funtsezkoa da; garrantzitsua da ere biktimia errespetatzea, eta une jakin batean atzera egiten badu eta ez badu nahi jarraitu, zati hori ere entzungo diotela eta azkenean biktimia ez duela zertan egon erakundearen eta epaitegien su-lerroan, sareak jarriko diolako ahotsa biktimia esaten ari denari.

Planteatzen den beste kontu bat da erakundearen eta administrazioen arteko lankidetzak...

Nire kasuan, judizio bidez egin zitzaion kontra LGTBIfobiari, nik neuk egin nuen urratsa. Sarearekin hitz egin nuen LGBTI gizarte-mugimenduek nire prozesua borrokaren zati bat egin zezaten eta, adibidez, udalean aurkezteko; nire kasuan, udalak erasoaren aurka egin zuen. LGBTI mugimendua udalarekin eseri zen, non protokolo bat lantzen ari baitzen mugimenduekin, baina hor geratu zen kontua. Sareak horri ere eutsi ahal dio, administrazioekin lankidetzan arituz zuzenean, beste pertsona bati gerta ez dakion. Denok eseri behar genuen elkarrekin: gizarte-mugimenduak, sarea, udalak; sareak bide bi horiek lotu ditzaie, berriro gerta ez dadin, eta, gertatzen bada, zelan jardun jakiteko. Garrantzitsua da jendeak jakin dezan sareak laguntza-zerbitzu bereziak dituela eta pertsonak ez daudela bakarrik. Hortaz, pertsona bera eta gizartearen konturatuko dira laguntza-zerbitzua ari dela ematen. Bozgorailu ere bada sarea, eta hurbiltasuna eskaintzen du; garrantzitsua da jendeak jakin dezan hurbil daitekeela.

Elkarrizketaren egilea: Elena Olaortua (Aldarte)